



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

Zorionak eta  
Urte Berri on!

Hurrengo aldizkaria

2014ko urtarilaren 9an  
egonen da etxeetan

2013ko abenduaren 12a | XXXIII. urtea | 604. zenbakia

www.ttipi.net

## Eguberriak

Gehigarri berezia → 23-30

### BEINTZA-LABAIEN → 31

Jose Luis Telletxeak  
agur esan dio aizkorari

### BAZTAN → 39

Auzo-konpostaren egunean  
konposta ondua atera dute

### ARESO → 35

Olazabal Promozioako lau  
terdiko finalean

### URDAZUBI → 40

15 urte egin ditu Ugarana  
Emakume Elkartek



Horra, horra, gure Olentzero...

## Ate joka ditugu urte garaiari dagozkion ospakizunak

Etxeko ttikien eta ez hain ttikien ilusioa pizten du Olentzerok eta bat baino gehiago noiz etorriko zain egonen da dagoeneko. Gehienetan abenduaren 24an ibiliko dira herri herri Olentzero eta Mari Domingi, kalejiran eta

kantuan, haur eta gazteen bizkar gainean. **Lesakan**, gainera, urtero bezala, Olentzero eta Jaiotza lehiaketa egingen dute. Hala ere, **Sara** izanen da bi protagonistek bisitatuko duten lehen herria, abenduaren 21ean etorriko baitira.

### Aizkoran eta lasterka desafioa Donezteben

Juan Telletxea eta  
Santi San Migel  
doneztebarrak  
Alex Txikonen aurka  
ariko dira abendua-  
ren 21ean. → 18

ZOKKETAK → 52



### Uholde arriskua ikertzen

Bidasoa eta inguruko erreketan arreta guneak kokatu eta konponbideak aurkeztu dituzte. Irtenbideetako batzuk gauzatzeko zailtasunak daukenez, arazoarekin bizitzen ikasteko neurriak indartu behar direla agerian gelditu da.

ERREPORTAJEA → 3-5



Txartela egiteko  
deitu 948 63 54 58ra

*Bertsolari Txapelketa Nagasia 2013*

**SEGITU FINALA ZUZENEAN!**  
ETBko IKERETAN HORTZERA  
ETA BERTSOA.COM

**FINALA**

**BARAKALDO**  
BILBAO EXHIBITION CENTRE  
Abenduak 15, 11:00etan



*Eitor Mendibuze   Eitor Sarriegi   Enato Erzaklio   Beñat Estebanendi   Igor Elortza   Maialen Lujanbio   Justoai Colina   Unai Murriaga*

ANTOLATZAILA:  LAGUNTZAILA: 

[www.bertsosale.com](http://www.bertsosale.com)

 **H. LOPEZ**  
Santiago, 93 ELIZONDO • T. 948 452 126  
info@honestolopez.com • [www.honestolopez.com](http://www.honestolopez.com)

**%60** arteko **DESKONTUAK**  
erakusketako artikuluetan



**KOMUNEN ZAHARBERRITZEA**  
**ZAHARBERRITZE INTEGRALAK**  
**DIRULANGUNTZEN KUDEAKETA**



INGURUMENA → UHOLDE ARRISKUAZ

# Urek gainezka egitean, denak gainezka egin ez dezan

Nafarroako Gobernuak ikerketa egin du eskualdean arriskuan leudeken guneak zehaztu eta konponbideak proposatzeko

Euria goian behean hastean, errekek arreta gune bihurtzen dira eskualdean. Gainezka egindako urek hamaika kalte eragin dituzte historian zehar. Europatik bultzatuta, ikerketa egin du berriki Nafarroako Gobernuak eta arreta gune nagusiak kokatu, konponbide zehatzak aurkeztu eta hondamenari aurre hartzeko neurriak proposatu dituzte. Erreken egoeraren berri izateko bidea zabaldu du ikerketak eta irtenbideetako batzuk gauzatzeko zailtasunak egon arren guztiak bildu nahi izan ditu TTPI-TTAPAK.

**Eneritz IRAOLA** |

«Uholde arriskua handia da eskualdean eta egoera okertzean erantzuteko denbora tarte txikia izaten da» azaldu digu Gloria Roblesek Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Saileko Uraren Zerbitzuko Teknikariak. Hondamenari aurre hartzeko asmoz, eta Europatik sustatuta, Bidasoa erreken eta inguruko errekatxoaren azterketa egin dute erreken ebaluazio, gestio eta antolamendu hidraulikoa egin asmotan. Orain arte 2005ean egindako ikerketak hartzen zituzten oinarri, baina aurrerapen teknologikoek egoeraren ikuspegi zehatzago bat egiteko aukera ahal-

bidetu dute. Azterketa hau egiteko, eskuragarri dagoen hirigintzako informazio guztia hartu dute kontuan. Informazio topografiko eta kartografikoa, uholdeen azterketak, datu publiko-metrikokoak eta foronomikoak... eta ibaiaren dinamikaren azterketa bat ere egin da. Horretaz gain hemerrotekako datuak eta kalteak izan dituzten herrietako galdeketen

**ZER DA ITZULERA ALDIA?**  
Ezohikoak izan eta ondorio larriak eragiten lituzketen bi gertaeren arteko denbora tarte neurtzeko erabiltzen den balioa da. Emari jakin batetik gorako bi ur erauntsi handiren arteko tarte.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2011ko azaroan Elizondoko Txokoto inguruan urak gainezka egiteko zorian.

## UHOLDE ARRISKUAN DAUDEN GUNEA

| HERRIA    | ERREKA                     | ARAZOA DAGOEN GUNEA                                                                                                          |
|-----------|----------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ELIZONDO  | Baztan                     | - Txokoto eta Giltxaurdi zubiak<br>- Baztan erreka gainean eta alboetan eraikitako etxebizitzak                              |
| IRURITA   | Artesiaga                  | - Herrigunea zeharkatzen duen ubidearen eskuin alde<br>- NA-174 errepide zatia                                               |
| LESAKA    | Onin, Bidasoa              | - Ubidearen bi ertzak eta herrian barna dauden zubixkak<br>- NA-4000 errepide zatia                                          |
| ETXALAR   | Tximista, Bidasoa          | - Herrigune hasieran ubidearen hestutzea<br>- NA 4400 errepide zatia                                                         |
| BERA      | Ibardin, Zia, Bidasoa      | - Pio Baroja, Altzate, Errotazar karrikak.<br>- Bera eta Lesaka arteko industria gunea<br>- N-121, NA4410, NA1310 errepideak |
| DONEZTEBE | Ezkurra, Bidasoa, Ezpelura | - Hiru ibaien ertzak.<br>- San Tiburtzio presa                                                                               |
| SUNBILLA  | Bidasoa                    | - Bi ibaiertzak                                                                                                              |

\*Datu-iturria: Nafarroako Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioa.

**OZTOPOAK**

«Ingurugiroarekin jasangarriak diren irtenbideak bilatu behar dira eta aurrekontuetan ere murrizketak izan dira. Gainera ibaietatik oso hurbil dauden lur eremuetan eraiki izana da arazo nagusienetakoa eta hori konpontzeko, etxebizitza aunitz erautsi beharko liriateke eta hori ez da bideragarria.

**Gloria ROBLES**

emaitzak ere baliatu dituzte. Guzti honekin azterketa hidrologiko bat egin da eta itzulera aldiak kontuan hartuta uholdeak non, nola eta zergatik gertatzen diren ikeritu dute.

Bildutako informazioarekin, uholdeak ekidin edota kalteak gutxitzeko neurri zehatzak proposatu dituzte. Dena den, krisiaren eraginez eta hirigintzarekin zerikusia duten oztopoak medio, proposamen horietako batzuk aurrera eramatea zaila izanen dela onartzen dute. Hori dela eta, «inoiz baino garrantzitsuagoa da prebentzio kanpainak indartzea, babeserako neurriak ezartzea eta gertakarien aurrean herritarrei prest egoteko bitartekoak ematea» dio Roblese. Uholdeen aurreikuspena egin eta alerta goiztiarrerako sistemak sustatzea da helburua. Horretaz gain, Lurraldearen antolamendu egokia egitea ere ezinbestekotzat jotzen du Roblese, «azken hamarkadetako hirigintza arau malguen ondorioz, erreka bazterretan eraiki da, aunitzetan ibaiaren bide naturala oztopatuz. Horrek larritu egin ditu ur-goraldiek eta uholdeek eragindako kalteak. Hala, biztanleria gehien dagoen eremuetan daude arazorik larrienak: Elizondo,

**ETXALAR: Santxiñeneko erreka inguruan erreka zabaltzea eta presa ezabatzea proposatzen du ikerketak**

Uste okerrak ere utzi ditu agerian ikerketak, Etxalarko kasuan presa jotzen zuten herritar aunitzek uholdeen eragile nagusitzat, baina Santsineneko erreka iristen den gunetik hurbil Tximista erreka estutze naturala da urek gainezka egitearen eragilea. Errekaren ibilgua zabaltzea proposatzen dute, presa ezabatzea eta pasabide bat ordezkatzeko.

**ELIZONDO: Giltxaurdi eta Txokoto inguruan proposatzen dituzte aldaketak**

MAPAK: NAFARROAKO GOBERNUA

Elizondon itzulera epe ezberdinetan, ubidea zein izanen zen ageri da irudian.

Baztan erreka gainezka egiten duenean kalteak eragiten ditu herrigunean. Txokotoko presan pilotutako harriek eta zubiaren izkinetan eraikitako etxebizitzek erreka zabalerara estutu eta emaria oztopatzen dute. «Eraikinak botatzea» litzateke arazoa konpontzeko modua, baina eremua ondare kultural izendatuta dagoenez, ezin da holakorik egin. Giltxaurdiko zubiak ere ez du gaitasun nahikorik. Horregatik Giltxaurdiko zubia 0,5 metroko zabalerako pasabide batekin ordezkatzeko eta gorago erreka zabaltzea proposatzen dute. Txokotoko presa ezabatzea eta pilotuta dauden sedimentuak kentzea eta herrigunea babesteko egiturak eraikitzea ere gomen datu dute.

**LESAKA: Onin erreka gurutzatzen duten zubiek gaitasun txikia dute uholdeari bidea uzteko**

MAPAK: NAFARROAKO GOBERNUA

Irudian ikusi daitekeenez aldaketa ugari proposatzen ditu Nafarroako Gobernuak egindako txostenean.

Egindako azterketak erakutsi du zubiek gaitasun txikia dutela. Azterketaren arabera, hamar urteko 'itzulera aldia' baino lehenago ura zubien gainetik ibiltzeko arriskua dago eta, horregatik, aldaketa batzuk egitea irtenbidea izaten ahal dela uste dute ikerketaren egileek. Babeserako pareta egitea proposatzen dute Antoiu karrikaren perpendikular 68 metroko luze eta 1,5 metroko altuerakoa eta babeserako bertze pareta bat eraikitzea Landazelaietako parean. Gainera, frontoitik Irubide aldera doan bideari altuera gehiago eman eta erreka bazterra sendotuko balitz, zati horretan urak gainezka egitea saihestuko litzateke tekniko hauen aburuz.



## PREBENTZIOA

«Arriskuarekin bizitzen ikasteari geroz eta garrantzia gehiago ematen zaio. Eskura dauden baliabideak erabili eta arrisku egoera bat gertatu aurretik herri-tarrei garaiz abisu emateko bideak garatu behar dira».

**Gloria ROBLES**

Irurita, Lesaka, Doneztebe, Bera eta Etxalarren».

Ez daude irtenbide errazak. Presak, dikeak eta kanalizazioak eraiki izan dira urteetan zehar baina neurriak ez dira eraginkorrak izan. «Oztopoak ere aunitz, ingurugiroarekin jasagarriak diren irtenbideak bilatu behar dira eta aurrekontuetan ere murrizketak izan dira. Gainera ibaie-tatik oso hurbil dauden lur eremuetan eraiki izana da arazo nagusiene-takoa eta hori konpon-tzeko, etxebizitza aunitz erautsi beharko lirateke eta hori ez da bideraga-ria» azaldu digu Roble-sek. Horregatik, preben-tzioa ezinbestekoa bihur-tzen da. «Garai batean, neurri estrukturalak har-tzen ziren, arazoa desa-gertaraztea zen asmoa, baina aunitzetan urek berriro gainezka egiten zuten. Horregatik gaur egun, arazoa ezabatu baino arazoarekin bizi-tzen ikastea da helbu-rua».

## IRURITA: Artesiaga

Artesiaga errekek gai-nezka egiten duenean kalteak eragiten ditu erreka bazterreko ka-rrika eta etxeetan. Go-ra behera handiak sor-tzen dira, urak gainezka egin eta NA174 erre-pide zati bat hartzen duenean, hori kon-pontzeko erreka-ren ertzak babestea pro-posatzen da.

## BERA: Ez dute soluziorik proposatzen Zia eta Ibardin errekek gainezka egiten dutenerako



Ibardin eta Zia errekek gainezka egiten dutene-an Berako karriketan nabaritzen dira kalteak: Pio Baroja, Altzate, Errotazar eta Lizuniagako errepi-deetako zati batzuetan. Bidasoak gainezka egi-tearen ondorioak ere sumatzen dira N121A erre-pidean (Ubela aldea), Zubixabal parean eta Bera eta Lesaka arteko industria guneeetan. Puntu kri-tikoetako bat Alkaigako industria aldea eta Zala-in-Bera arteko zubia da, 100 urteko itzulera aldi-

an ez luke uholdea jasateko gaitasunik izanen. Higadura arazoak ere nabari dira ezkerraldeko ezpondan. Itzulera aldi laburretan, Zia errekek eta Ibardin-goak arazoak sor ditzakete. Kasu horretan karri-keetan ibiliko liratekeen urak norabide aunitzetan ibiliko zirenez eta sozialki ere neurriek inpaktu handia sortuko luketelako (ikusi irudiko geziak), ez da neurri zehatzik proposatzen.

## SUNBILLA: Uhaldearen ertzetan pantaila mugikorrak jartzea proposatzen dute



Uholdea datorrenean uhaldeak bi aldeetara egiten du gai-nezka, baina arazo larrienak eskuin aldean sortzen dira. Uhalde bazterreko etxeen tipologia berez babes estruk-tura bat sortzen du, baina gehiago babesteko, pantaila mu-gikor bat jartzea proposatzen dute. Hortaz aparte, NA121A erre-pidearen gainaldea sendotzea proposatzen dute.

## DONEZTEBE: Babeserako paretan jartzea eta estolderia sistema aztertzea, araro larriagorik ez izateko



ARTXIBOKO IRUDIA

2009an urek gainezka egin zuten Donezteben.

Ezkurra, Ezpelura eta Bidasoak gainezka egi-ten dutenean Donezte-ben kalte larriak sortzen ahal dira. Horregatik ba-beserako paretak egi-tea gomendatzen dute azterketaren egileek. Babesgarri finkoak ahal den lekuetan eta ber-tzeetan mugikorrak pa-ratuko lirateke kalteak gutxitzeko asmoz.

Estolderia sistema ere aztertu beharko litzate-ke, ura karriketara iri-tsiko balitz arazoa larri-agoa izan ez dadin. San Tiburtzio presak ere uholde kasuetan izan dezakeen eragina azter-tu dute eta ur emaria handia denetan presa-ko ateak irekiko direla ziurtatzeko neurriak hartzea zehaztu dute.



**Nire txanda**  
Beñardo GOIETXE

## 2013 ziztuan

Bertze urte bat joaki da, hondarreko urteotan bezala krisia arinduko zela agindu ziguten harako *Rapel* hura bezain sinesgarriak diren iragarle gezurti batzuek. Baina ez, krisia ez da mehetu, gizendu baizik, dieta miresgarriak eginda ere, langabezia eta beharren larritasuna kiloak har eta har. Eta aitzakia hori baliatuz, *Navarraco Gobiernotik* sos pizarrik ere ez euskal kultura eta mintzairaren kutsua duen zernahirendako; nahiz eta horren “alde” daudela maiz errepikatu, diru-laguntzarik gabe itotzeko mendeku isila aitzinera beti. Noizbehinka neure buruari galderak egiten dizkiot: “Nafarra ote nauk? Arrotza ote nauk ene herrian? Geure euskaltasuna soilik turismorako on den paisaia, usadio zahar, eta aho-soinu bitxidun abere exotikoen natur parke bihurtu nahi ditek? Oraingo mandatarien erreinuaz haratago bizirik ba ote?...” Eta bitartean, *reality* berriak zahar: lapurrik handienak libre aski, esnegain bortsakeriagatik kartzela zigorrak jarri dituen Inkisizio Nazionala, ikerketa misterioitsu bat, D ereduko irakasle gaizto batzuk (bistan Da) *Navarraco* gazteak gerillarako prestatzen ari omen... Ea urte berriak pazientzia eta osasunaz gain, berri hobeak ekartzen dizkigun! Eta bizia pixka bat argitzeko, ez ahanzi nire kalaka-kideen bitamina! “Egin xixtu, baina ziztuan ez ibil!”

**Ezpala**  
Aitor AROTZENA

## Eltzetzuen ikerketa sakonak

Lanik ez izateak zer lan ematen duen! Nafarroako D ereduko irakasleen %26 ezker abertzalea=ETArengatik ingurukoa dela *ikertu* ondotik, txosten erreserbatu (?) fidagarri (??) berriak prest ditu Guardia Zibilak: harakinen %22,5 begetariano da, apezen %18,7ak seme-alaba ezkuturen bat dauka eta kazetarien %99,9ak ez daki zer idatzi paper zuriaren aitzinean jartzen denean.

## Nabarmentzekoak



**Mikel LASARTE**  
Xalto Sarietan txapeldun

Azaroaren 22an Goizuetan jokaturako Xalto bertso sariak irabazi zuen aita Leitzako Telleri baserriko duen Barañaingo bertsolariak. 17 urterekin, finalista gazteena izan zen.



**Dabid ANAUT**  
Leitzaldeko euskara teknikaria

‘Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria’ liburua karrikaratu berri du, «euskarak historian zehar izandako urraduren erakusgarri ttiki bat baino ez».



**Pepito IRIBARREN**  
Berako pelukeroa

Erretiroa hartu eta Bivenido bere aitak 1925ean irekitako gizasemeen pelukeria itxi behar izan du. 15 urterekin hasi zen eta, segidarik gabe, azaroaren 30ean itxi zuen.

## Atzera begira → 2003.12.18 / LURRA 32 zk.



## Argindarrak gabe bizi ziren Erratzuko Bidegorrieta baserrian

Eguneroko lanak argindarrak gabe egiten zituzten duela hamar urte Urritzateko Bidegorrieta baserrian. Pilak, kandelak eta gasa erabiltzen zuten argia emateko, Lurra aldizkariaren erreportajeak jakitera eman zuenez. Gainera, ez gurasoek, ezta bi semeek ere, ez zuten inoiz argindarra ezagutu etxean. «Ardiekin, behiekin eta zerriekin egiten dugu lan eta arras zaila da linterna, gasa eta kandlekin lan horietan ibiltzea» zioen Juan Marisko etxeko nagusiak. Erreportaje hori karrikaratu eta bi urte terdira, 2006ko maiatzaren 11n eraman zuten argindarra baserriera, Acciona Solar enpresak egindako instalazioari esker.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneitz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Iruña eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia  
**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitzua, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

## 2013ko harpidetza sariak

|                    |             |                       |             |                                |          |
|--------------------|-------------|-----------------------|-------------|--------------------------------|----------|
| Hego Euskal Herria | .....40€    | Europa                | .....59,50€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka | .....34€ |
| Ipar Euskal Herria | .....59,50€ | Amerika eta Australia | .....124€   | Leitzua                        | .....17€ |



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

## Martin Koplari eta Fermin Legia

Mikel TABERNA

**P**io Barojak bere *Los caudillos de 1830* nobel-  
lan bertsolari baten berri eman zigun, eta ha-  
renak bide ziren bertso batzuk txertatu zitu-  
en istorioan. Idazleak Martin Coplari izena eman  
zion pertsonaia hari. Gerora, Julio Carok, bere *De  
la vida rural vasca* liburuan, bertso haiek Martin  
Olaetxea izeneko zurarotz beratar batenak zirela  
erran zigun. Iduri duenez, haren iloba Juan Jose  
Olaetxeari ikasi zizkion don Piok.

Bertsoak Fermin Legiaren kontra eginak dira. Le-  
gia hori *-kontra biño, alde hobia!*, erraten zuten-  
Beran famatua da hagitz. Urrola baserrian jaio zen  
XVIII. mendearen hondar aldera, eta orain dela be-  
rrehun urte Bonaparteren kontra borrokan ari zi-  
renekin juntatu omen zen halako batean. Gerra ha-  
rekin ez zuen aski izan, nonbait, eta karlistaldian  
ere parte hartu zuen, liberalen alde eta karlisten  
kontra.

Baina gure koplaria karlista izaki eta, aipatu ditu-  
gun bertso horien bidez militar liberalaren hutse-  
gin batzuk kontatzea go-  
goratu zitzaion. Hiru ber-  
tso heldu dira nobelan,  
eta hauxe da hirugarre-  
na: *Komisanyuren goizi-  
an zuten / Biserregeren  
tranpiya / Iruñiko bidea  
libre / eben ustez balen-  
tiya / zakua bidean lertu  
eta / isuri zayo kantiya.*

Bertsoek badute mamia.  
Kontatzen dute nola abia-  
tu zen Baionatik gure Le-  
gia, 1830eko urriaroan,  
Espoz y Minarekin eta Jauregi "Artzaia"rekin ba-  
tera, muga pasatzeko ideiarekin, Fernando VII.a  
erregearen erregimenaren kontra. Espedizio hura  
agudo geldiarazi zuten, eta horren berri ematen  
digu Martin Olaetxeak.

Euskararen aldetik ere arrunt interesgarriak dira  
hitz horiek, hemengo bertako solas eta erranera  
batzuk erakusten dituztelakoz. "Komisanyu" hori,  
bistan da, "Omiasaindu" da; "balentiya" iruditzen  
zait "balentria" edo "azaina" dela; eta politena azke-  
neko lerroa du: "zakua bidean lertu eta isuri zayo  
kantiya". Horra zein ederki adierazia Legiaren fra-  
kasoa. "Kantia", hiztegietan inon harrapatu ez du-  
dan hitza, errotatik irinez betea etortzen den za-  
kuari halaxe erraten diogu.

Martin Koplariren bertso hauen istorioa kontu eza-  
guna da, toki frankotan aipatu dutena. Baina ba-  
dira oraindik argitu gabeko alderdi franko, bai ber-  
tsoen egileari buruz bai bertsoei buruz. Konpara-  
zio batera, ez dakigu zein ote den kantatzeko doi-  
nua? Ez ote da Beran inor bertso hauek noizbait  
aditu eta kantatzen dakienik?

«Martin Koplariren  
bertso hauen  
istorioa kontu  
ezaguna da, toki  
frankotan aipatu  
dutena. Baina  
badira oraindik  
argitu gabeko  
alderdi franko»

## 'Terrorismoaren apologia'

Mikel RODRIGUEZ LANDA

**1** 978an indarrean sartu zen 'Terrorismoaren  
apologia' zigortzeko legea Espainiako Erresu-  
man. Zehazki, Hego Euskal Herrirako pentsa-  
tutako legea zen, suposatzen da ETaren aldeko  
adierazpen, manifestazio edo ekintza sinbolikoak  
debekatu eta zigortzeko. Estatuak ezin zuen onar-  
tu legez kanpoko erakunde militar baten alde inork  
adierazpen publikorik egitea. Urteak, eta hamar-  
kadak ere pasa ahala, Estatuak lege hori zabaltzen  
joan da, 'apologia' horren erranahia zabaltzeko, eta  
legea eginda, tranpa egin du. Azken urteotan, ge-  
ro eta gehiago, makina bat politikari, kazetari, gi-  
zarte ekintzaile eta bertzelako herritar salatu, zigor-  
tu, espetxeratu eta jazarri dituzte hainbat iritzi jen-  
durrean adierazteagatik, eta ez, preziskiki, erakun-  
de militar bati babes espli-

«Espainia eta  
espainolistak  
larrugorritan  
gelditu dira, armak  
itzali direnean ere,  
solasen aurka  
gerran daudela  
erakutsi baitute»

zitua adierazteagatik –ho-  
ri zilegi den edo ez ere ezta-  
baidagarria izan beharko  
litzateke, baina ezin da-,  
iritzi politikoak ematea-  
gatik, baizik. Pozoitutako  
tresna bat bihurtu da, Esta-  
tuak erabilia, eta Hego Eus-  
kal Herriko sektore espai-  
nolistek eta erregionalis-  
tek hauspotua, haiek eza-  
rritako arautik ateratzen den diskurtsoa zigortze-  
ko. Hasier Arraiz Sortuko presidenteari egin diote-  
na ikustea bertzerik ez dago. Edo egoera esper-  
pentikoak ere sortu ditu, Zarauzko bi gaztek kartze-  
lan bukatu baitzuten, salatari anonimo batek –txiba-  
to batek, 'vamos'– erran zuelako ekitaldi batean  
'Gora ETA!' oihukatu zutela –gero jakin zen Zarauz-  
ko PSEko zinegotzi bat zela anonimo hori-. Baina  
ikusten ari gara ETAk borroka armatua utzi ondo-  
tik indar bereziz erabiltzen ari direla 'terrorismoa-  
ren apologia' delitu horren salaketa, borroka armatu-  
aren faltan, solasek hartu dutelako protagonismoa,  
eta Espainia eta espainolistak larrugorritan gelditu  
dira, armak itzali direnean ere, solasen aurka ge-  
rran daudela erakutsi baitute. Arrazoi moralak eta  
etikoak argudiatzen dituzte lege hori mantendu eta  
erabiltzeko, baina euskal herritarren zati handi ba-  
ten adierazpen askatasuna mugatu eta horien dis-  
kurtsoa desagerrarazteko erabiltzen dute. Bertze-  
ak existituko ez balira bezala, 1959tik gaurdaino  
gertatu dena espainolistek erran duten bezala ge-  
rtatu dela erran dezaten denek. Bertzela, espetxe-  
ra. 'Terrorismoaren apologiaren' aurkako legea ez  
da oinarritzen moral edo etika garbi baten ikuspuntu-  
an, ez herritarren babesean edo konbentzimendu-  
an ere. Indar hutsean oinarritzen da, Poliziaren, au-  
zitegien eta espetxearen beldurrean, diskurtso bat,  
bakarra, Madrildik eraikia, Espainiaren zerbitzura.



## Irakurleak mintzo

Yolanda Barcina  
patetikoaXanti BEGIRISTAIN MADOTZ  
(Auritz)

Yolanda, berriz ere noka eginen dinat, normalean lankide ohiei egiten zaien bezalaxe. D ereduan, Nafarroan, asmatu duzuen mamu gaizto, berri eta aldrebesarekin, berriz ere sartu haiz nabarmenkerietan. Hasteko eta behin, oso gustukoa izaten dun erabiltzea *los batasunos* eta *los etarras*. Hara, ba, nondik nora, *batasuno* hitza ez zagon Espainiako hizkuntzaren Errege Akademiako Hiztegian, eta *etarra* bai, baina hona hemen zer jartzen duen: (Del vasco *etarra*)... Baina oso bitxia dun, zeren eta Euskaltzaindiaren hizte-

gietan ez baita agertzen *etarra* hitza, ez Hiztegi Batuan ez Orotariko Euskal Hiztegian ere, normala den bezala, modu horretan idatzita ez baitu batere esanahi egokirik, eta hik, nafar eredugarri bezala jakin beharko huke. Aizan, hortaz ba, gaztelanian ere hobetu beharra daukan! Honekin, argi eta garbi geratzen dun zein mesprexturekin hitz egiten dunan zenbait nafarren aurka.

Hasierako gaira itzulita, bazekinat hik bezalako pertsona agintzaile batek ez didala bate-re kasurik eginen; ez dinat halakorik espero hīgandik. Hau idazten baldin badut, soil-soilik dun nire buruari terapia pixka bat egiteagatik.

Aizan, Yolanda, hik esandako hainbeste ergelkeria maltzur sinis-

ten baldin badun, zerbait egiten hasi beharko dun Nafarroako Parlamentuan bertan ere, zeren eta, seguru bainago hor ere topatuko ditunala parlamentarien artean, LABen afiliatuak egon direnak edo daudenak, ikastoletan eta D ereduan ikasi edo irakatsi dutenak, edo fundatu dutenak, Sortzen-Ikasbatuaz Elkar-teak antolatutako jaialdietan ohikotasunez parte hartzen dutenak, senideren bat espetxean dutenak, eta, beraz, oso sarritan bisitatzera joaten direnak eta abar, eta abar. Denok dakigun bezala, egundoko delituak guztiak ere. Yolanda, inguratuta hago; hortaz, nik uste dinat gaur bertan agindu beharko hiokela beste txosten bat Guardia Zibilari, hire buru gaixoa

gordetzeko parlamentari arriskutsu horien-gandik.

Yolanda, ez dinat eskatzen euskara, euskal kultura eta euskaldunak maitatzeko, bai baizekinat erraiek ez dinatela uzten, soil-soilik eskatzen dinat nafar guztiak berdin-berdin tratatzeko eta errespetatzeko, japoniarrak, txinatarrek edota errusiarrak errespetatzen ditunan bezala-bezalaxe, ez gehiago eta ez gutxiago.

Bukatzeko, Yolanda, jakin ezan gauza bat, hire jokamolde desegoki-ekin itsusten dun Pablo Milanésen kanta zoragarri haren izen eder hura.

## Urte Berri On!

## TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

Esku artean duzun aldizkari hau izanen da 2013 urteko azken TTIPI-TTAPA. Hurrengo alea 2014ko urtarrilaren 9an aterako da. Beraz, bi astera ez, lau astera jaso-ko duzu 605. zenbakia eramanen duen aldizkaria etxean. Milesker urte osoan zuen etxetako ateak zabaltu dizkiguzuelako eta heldu den urtean ere horretan segitu nahiko genuke.

TTIPI-TTAPA aldizkaria eta webgunea egitea posible egiten dugun guzuzon partetik ongi buka dezazuela urtea eta hobe hasi 2014a. Elkarren berri izaten segi dezagula! Zorionak eta Urte Berri On!

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**  
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**  
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

**Gabonetako deskontu bereziak eguzkitako betaurrekoetan**  
**%20 %30 %40**  
abenduaren 9tik urtarrilaren 5era

**Ostargi optika**

Bea Artola Ferran. Optiko-optometrista kol.zk: 9812  
Bidasoa 8 BERA Tfno: 948 630 753

**Ospatu urte berria, ingurumenarekin bat**  
**yonolotiro.es** zure lagun ikusezina  
Sartzen laguntzen duen weba

Partenariak:

- Nafarroako Gobernua
- Nafarroako Hordakin Markomunitateak
- Crana
- Laguntzaileak



## Prentsatik bildutakoak



«Oinatz Bengoetxearen eta bion arteko harremana oso ona da. Une gozoak eta gogorrak partekatu ditugu, baina hori guztia oso aberasgarria izan da maila pertsonalean. Horrek asko elkartzen du. Su-fritzea tokatzen denean, sufritu egin behar da (...) Entrenamenduetan nahiko astuna izaten naiz, denean enfasia jartzea gustatzen zait. Aurten sa-kean jarri dugu arreta».

**Asier GARTZIA**  
Bengoetxearen botileroa  
DIARIO VASCO 2013.11.26

«Gaur egun osasun-tsuena emakumeek erditzea euren beharretara egokitzea litza-teke. Eta batzuetan behar horiek bat etorriko dira erditze fisio-logikoarekin, baina bertze batzuetan ez. Nire apustua erditze kontzientearen alde egitea izan da. Erditzera doan emakume horrek bere beharrak eta umearenak zein diren kon-tuan izatea».

**Estitxu FERNANDEZ**  
Lesakako psikologoa  
BERRIA 2013.11.26

## 11 galdera labur

### Nor dugu Gorka Arraiago?

21 urteko aresoarra, Enpresen Ad-ministrazioa eta Zuzendaritza ikas-ten ari dena, trikitilaria eta parran-dazalea.

### Momentu honetan aresoar inter-nazionalena akaso?

Ez dut uste bakarra izango naize-nik, aisoarrak ez gara etxean gel-ditzen garen horietakoak....

### Munduko zein txokotan harrapa-tu zaitugu?

Australian, Wollongong-en bizi naiz 300.000 biztanle inguruko hiria da.

### Ikasteko aitzakian joan eta...

Herrialde oso berri, aberats eta ga-ratu batekin egin dut topo. Berta-ko jendea oso irekia da eta jatorri guztietako herritarak bizi dira.

### Australian harritu zaituen zerbait?

200-300 urteko historia duela he-rrialdeak eta australiar askok han-kautsik ibiltzeko ohitura dutela.

### Zein paraje ezagutzeko aukera izan duzu?

Sydney, Melbourne eta Gold Coast ezagutu ditut batez ere eta Tailandia eta Singapurren ere ibili naiz.

### Australian trikitixa jotzeko auke-riarik bada?

Maletan ekarri nuen eta noizean behin jotzen dut, ez ahazteko.

### Zer botatzen duzu faltan?

Lagunak eta amaren janaria.

### Eguberri usainean etxera buelta?

Bai, ez naiz ikusten eguberrietan etxetik kanpo.

### Urte berriarekin zein asmo ditu-zu?

Otsailean berriro ere kanpora noa, Gantera (Belgikara) gradu-ko az-ken sei hilekoa egitera eta horre-kin graduatu egingo naiz. Hortik

aurrera lanean hasi edo ikas-ten segitu... auskalo!

### Amets bat?

Erromeri talde bat osatzea eta Euskal He-rriko txoko guz-tiak alaitzea festaz festa.



**Gorka ARRAIAGO → Australian ikasten ari den aresoarra**

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**okaNe**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
Tfno/Fax: 948 630 018 Karitonberri 12 - BERA

**BILTEGIA 948 630 102**  
**FAUSTINO 647 810 152**  
Bidasoa, 76 - etlea 21-22  
31780 BERA

**SMAZIZOR**  
Edariak

ORDUTEGIA:  
Astelehenetik ortziratera  
goizez eta arratsaldez

Alkaiaga Industriaidea  
Zibiri 1 31789 Lesaka  
T. 948 631 557

Zure ospakizunetarako behar duzun guztia!

Lkoreak, cava-k, xanpainak, ardo bereziak,  
munduko ardoak, txakolina, sagardoa, garagardoa,  
oloak, ozpinak eta kontserbak

## BORTZIRIAK

EUSKARA MANKOMUNITATEA

# Bortzirietako Bai Euskarari zozketako zenbaki saridunak jakinarazi dituzte

Txartelen jabeek urtarilaren 10era bitarteko epea dute mankomunitate arekin harremanean jartzeko

## TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Bai Euskarari Zozketa antolatu du. Guztira 10.000 boleto prestatu dituzte, Bortzirietan Bai Euskarari Ziurtagiria duten era-

gileek beren bezero, ikasle edota bazkideei banatzeko. Zozketatzen diren sariak Bai Euskarari Ziurtagiria duten bi eragilek emanak dira. Abenduaren 4an, asteazken eguerdian zozketa egin da, eta zenbaki saridunak atera dira.

Lehenbiziko zenbaki saritua 7.849 izan da eta Lesakako Oninartek banatu du bere bezeroen artean. Saria 60 euroko erosketa da, Berako Sarobe okindegi-an egiteko.

Bigarren zenbaki saritua 6.479 izan da, eta Igantziko Biltoki Elkarrekin banatu du bere



UTZITAKO ARGAZKIA

## Aymee Ribalta eta Edurne Alegria ikasleak saritu ditu Bortzirietako euskaltegiko zozketak

Euskara Mankomunitateak helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko, ikasleen ahalegina saritzeko eta euren motibazioa indartzeko, Euskaltegiko ikasle-artearen bi sari zozketatu zituen aukeran, bata urte osorako matrikula, eta bertzea telefono eramangarria. Zozketa urriaren 25ean egin zen Euskara Mankomunitatean, eta honako bi ikasle hauek izan dira sarituak: Aymee Ribalta Mirabal, 1. urratseko ikaslea, eta Edurne Alegria Iraola, 5. urratseko ikaslea (Mentxu Peña irakaslearen eta Jaime Iturria Mankomunitateko presidentearen artean ageri dira). Zorionak bioi! Bortzirietako Euskaltegian euskara ikasteko taldeak abian direla urriaz geroztik, eta aukera bada urte berriarekin euskaltegi-asteko, otsailean berriz ere izena emateko aukera irekiko baita. Horrez gain, urte berriarekin EGA taldean sartzeko aukera izanen da. Interesatuak 948 637796 telefonora deitzen ahal dute informazio gehiago galdetzeko.

bazkideen artean. Saria Berako Halcón Bidaiak bidai agentziak eskaintako 60 euroko erosketa txartela da.

Saridunek urtarila-

ren 10era bitarteko epea dute mankomunitatearekin harremanean jartzeko. Horretarako nahikoa da goizetan telefonoz 948634125 zen-

bakira deitzea. Jakinarazi dute epe horretan ez balira zenbaki saridunen jabeak agertuko, sariak eman gabe galdutuko liratekeela.

**EYSKALDYNA**  
OSTATV JATETXEA

**URTE ZAHARREKO AFARIA** **40€** BEZ berriz

Urdaiaspiko iberikoa  
Foie mi-cuit bioka  
Ganba zakutxo pikillo-kremarekin  
Mandarina sorbetea txakolinarekin  
Legatz-solomoa labean erreta barazkiekin  
Hidi-azpizuna ondo eta perretxikoz betetako piperrarekin  
Tarta izozkiarekin

Ardoak: Arabako Errioxako ardo beltz onduak; San Martin de Unxeko ardo gorriak; Rueda ardo zuria; Brut Nature 1882 cava.

Mahatsak eta kafea

Bidasoa 5, BERA • T. 948 630 392 • 948 630 907

**Garbi ogi & coffee**  
Kafetegiak, txakolinariek

• Urteberri egunean irekia goizean •

Iturlandeta, 6 • BERA • 948 625 673

**MARITX**

Legia, 23-BERA  
T. (0034) 636 617 450

Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

**carrho**  
gozategia olandegia

pl. de euzkera 25 beko  
50100 Bera (Navarra) 1.948 630 899  
www.sarobe.net

**JAKINE-GOZTEKIA**

948 630 786  
Altzale, 19 • BERA

**zalain**  
JATETXEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
W. www.zalain.com



GIZARTEA → MATZADA ETA AGERRA

## Futbol zelaian egoeraz kexu agertu dira Gure Txokoako jokalarien gurasoak

Azpiegitura hauek egokitzea aldarrikatu dute

### TTIPI-TTAPA

Gure Txokoa futbol taldeko guraso batzuk Matzada futbol zelaian egoera tamalgarria eta entrenatzeko erabili ohi den Agerrako zelaian egoera txarra salatu dute. Haien seme-alaben motibazioarako ezinbertzekoa deritzoten azpiegitura hauen egokitzea aldarrikatuz herritarren laguntza eskatu dute.

Gurasoek gogoratu dutenez, «gaur egun ditugun instalazio eska-sekin Gure Txokoan 180 bat haur eta gazte ari dira futbolekin; 10 taldetan banatuak eta sei maila desberdinetan jokatzeko». Alde batetik, Matzada futbol zelaian egoera tamalgarria

salatu dute, «zelaian egoera penagarria, har-mailarik gabeko zelaia, partiduak ikusteko estaldurarik eza, bankilloak ...». Bertze aldetik, entrenatzeko erabiltzen den Agerrako zelaia ere «ez da motz gelditzen. Matzada ez izorratzearen erabiltzen duten zelai hau hagitz egoera txarrean dago (zuloak, putzuak, lohia...) eta euria egiten duenean egoera petral hau areagotzen da. Horrelakoe-tan, frontoian entrenatzea izaten da irtenbide bakarra», diote.

### Antzerkiak

Aspaceko Uxane zentroko ikasleek *Cuando yo nací... aspaldi sortu berria* antzezlan eskainiko dute abenduaren 20an, 19:00etan Kultur Etxean (sarrera 3 euro). Hilaren 28an, berriz, *Ez gara Palestinaz ari* ikuskizuna izanen da 19:30ean Kultur Etxean (sarrera 3 euro).



UTZITAKO ARGAZKIA

### 88 urte eta gero itxi egin dute Iribarrendarren pelukeria

Erretiroa hartu eta Bienvenido Iribarren bere aitak 1925ean irekitako gizasemeen pelukeria «mitikoa» itxi behar izan du Pepito Iribarren Aldaz ileapaintzaileak. Bienvenido 70 urtera arte aritu zen lanean eta 90 urterekin hil zen arte seme-ari aholku ematen aritu zen. Pepito 15 urterekin hasi zen aitari laguntzen eta, segidarik gabe, azaroaren 30ean itxi behar izan zuen Bortziriak, Sara eta inguruko herrietako hainbat bezero zituen establezimenduak.

### GIZARTEA

## Metereologia estazio automatikoa paratu dute Larrategaina inguruan

### TTIPI-TTAPA

Santa Barbara mendiaren magalean, Larrategaina inguruan paratu du Nafarroako Gobernuak metereologia estazio automatiko berria, datuak denbora errealean ematen dituenak. Honela, gisa honetako 20 estazio dau-de Nafarroan eta bertze 9 datuak denbora errealean ematen ez dituztenak.

Estazio hauek guziek sentsoreak dituzte, temperatura, hezetasun erlatiboa, euri prezipitazioak, eguzki erradiazioa eta 10 metroko altueran haizearen abiadura eta norabidea neur-

tzen dutenak. Hamar minutuero bil-tzen dituzte datuak eta Nafarroako Gobernuaren metereologia orrialdean sartzen dute informazioa.

Denbora errealean ematen diren datu horiek baliagarriak izan dira larrialdi egoeretan, hala nola sute, uholde eta haizete handietan. Edozeinentzat eskuragarri daude datu horiek eta jendeak gero eta interes handiago du horiek jakiteko. Hala, metereologia webguneak ([meteo.navarra.es](http://meteo.navarra.es)) 1.400.000 bisita jaso zituen urrian, joan den urte osoan baino gehiago.

**Kotoi**  
Kortinak  
Estoreak  
Etxerako ehungintza  
eta osagaiak  
Bidasoa karrika 14 - 31780 BERA  
T/F. 948 631 660

**eh**  
HOTEL CHURRUT  
Urte Zaharreko  
afaria Churrut  
Jatetxean!  
...eta urte  
hasieran  
**EZKONTZA**  
**AZOKA!!**  
Foruen plaza - BERA  
T. 948 62 55 40  
T. 948 625 542  
[www.hotelchurrut.com](http://www.hotelchurrut.com)  
**TALDEENTZAKO BAZKARIAK**  
**EGUNEKO MENUA eta BANKETEAK**

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**BAR Botxo OSTATUA**  
Zalain - BERA - 948 630 052

## LESAKA

GIZARTEA → GIRO EDERRA IZAN ZEN

# 148 azienda plazaratu ziren feria egunean

Behietan lehen sariak Gillenbordara eta Berako Begibeltzeneko bordara joan ziren

**Aitor AROTZENA**

148 azienda aurkeztu ziren azaroaren 28an, Bortzirietako feria egunean parte hartzera. Horietatik 104 zaltabereak ziren, tartean ponniak, pottokak eta monturakoak zirela, 39 behi, batzuk bere aretzearekin eta zezenkoren bat betabereetan eta bortz ahar.

Haragitarako behien kategorian lehenbiziko eta bigarren sariak, 190 eta 160 euro, Berako Begibeltzenekobordako Joxean Igoa Etxebesterentzat izan ziren eta hirugarrena, 100 euro, Lesakako Iriberriko Jon Muñoa Otxotekorentzat.

Suitzen kategorian, 190 euroko lehen saria eta 100 euroko hirugarrena, Lesakako Gillenbordako Francisco Javier Altzugaraireren bi bururentzat izan ziren. Bigarren saria, berri, 160

euro, Berako Begibeltzenekobordako Joxean Igoa eskuratu zuen.

Zaldi aziendetan, 125 euroko lehen saria Arantzako Vicente Arozenarentzat izan zen eta 95 euroko bigarrena eta 50 euroko hirugarrena Iriberriko Jon Muñoarentzat izan ziren. Azken bi urteetan bezala, pottoka, montura eta ponni onenak ere saritu ziren. Honela, Marisol Otxotekok 100 euro eskuratu zituen pottoka onenarengatik, Miguel Almandozek 80 euro bere montura behorarengatik eta Jaime Etxegarai beratarrek 70 euro ponni onena plazaratzegatik.

Aharian, bortz buru aurkeztu ziren eta hiru sariak Jose Mari Aranibarrek plazaratutakorentzat izan ziren.

Baina azienda feriaz gain, karrikek salmenta postuez gainezka egin zuten. Eskulangileek Alondigako eta Herriko Etxeko arkupetan aterpetu ziren eta nekazaritza lanabes zaharren erakusketa ere antolatu zuten gazteek. Plazan, herri kirol saioa izan zen eta Unai Agirre eta Julio Soto bertsolariak



ARGAZKIAK: A. AROTZENA ETA JJ GUERRERO

Giro ederra izan zen ferietan, eguraldi eguzkitsua lagunduta.

kantari aritu ziren kioskotik, presoen senide eta lagunek hauen eskubideen aldeko elkarretaratzea ixilean egin zuten bitartean. Elkartasun zerria ere zozketatu zuten eta 0768 zenbakia suertatu zen sariduna. Arratsaldeko pilota jaialdiko partida nagusian, Patxi Eugik eta Iñaki Otxandorenak 22-18 irabazi zieten Berrinat Oronoz herritarrei eta atzelari aritu zen Mikel Goñiri.

## AJOARRIERO LEHIAKETA

Bezperako ajoarriero lehiaketan 11 bikote

bildu ziren, horietatik 6 Bortzirietako Gorriak peñarenak, eta bertzeak, Arransurde, Bakailu Kuisine, Irain Guraso Elkartea, Euskal Artzainak Ameriketara eta Lesakako Zerbitzuen Elkartetakoak. Zerbitzuen Elkarteko Juan Luis Otxotekok eta Antton Gurutxet-ek eskuratu zuten lehen saria. Bigarren, Bortzirietako Gorriak peñako Alicia Martin eta Juan Ignacio Etxepare eta hirugarren Osasunazaleen talde bereko Agustin Zubietak eta Patxi Oteiza izan ziren.



## Ba al zenekien

Komentuko eskuin hegala (ateak igerileku aldera ematen du) Gaztetxea izanen dela eta izena paratzeko proposametak biltzen ari dela Gazte Asanblada

## FLASH

### Keinu Leihoak

Mairu Antzerki Taldeak Udalaren laguntzaz antolatutako antzerki zikloaren azken emanaldia abenduaren 14an, larunbat arratsko 8:30ean izanen da Kasinon. Gilkitxaro taldeak *Urak ttiki dire* antzezlanak eskainiko du, 14 urtetik goitikoek zuzendua. Sarrera 2 euro kobratuko da (balidin badituzu).

### Abesbatza Eguberrietan

Eguberri Eguneko mezan kantatzeaz gain, hilaren 28an emanaldia eskainiko du Abesbatzak Andra Mari Zahar Etxean 17:00etan eta Urtezahar arratsaldeko 18:00etan hasiko den Diostesalve kalejiran parte hartzeko deia ere egin du. Aipatu behar da webgune txukun eta interesgarria sarreratu berri duela Abesbatzak: [lesako-abetesbatza.wix.com/lesaka2](http://lesako-abetesbatza.wix.com/lesaka2)





## ETXALAR



ARGAZKIA: JONE BIZENTE

Saski dotorea prestatu du Altxata dantza taldeak eta abenduaren 24an egingen da zozketa frontoian.

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

# Herritarrak Eguberriak prestatzen hasiak dira

Ekitaldi  
gehienak  
Gabon  
egunean  
izanen dira

### Irune eta Itsaso

Abenduaren 24an, arratsaldeko 16:30ean haur eta gurasoak plazan elkartu eta herriari itzulua emanen diote Olentzero eta herriko musikariekin. Ondotik Txokolatada eta pin-

txoak izanen dira frontoian herriko gazteen eskutik; txistulari eta trikitilariek girotuta. 19:00-etan meza izanen da eta ondotik Elizako arkupean eguberrietako abestiak kantatuko dira. Segidan, 20:00ak inguruan Altxatako dantza taldearen aldeko saskiaren zozketa egingen da frontoian.

Urtarrilaren 6ean, ilunabarrean, urtero bezala txokolatada eskainiko die Larraburua elkar-teak herriko haurrei.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

### Larraburuko bazkideen eguna

Urtero bezala San Frantzisko egunean Larraburua Jubilatuen elkarteak 80 urte bete dituzten bazkideak omendu ditu. Aurtengoan bi izan dira; Ana Maria Soria Ariztegi eta Miguel M<sup>a</sup> Arburua Arribillaga. Goizean hildakoen alde meza izan zen eta ondotik bazkaria Larraburuan.

### Usategietako sasoia ren akabera

Azkeneko alean sasoi 80 dozena harrapatuta akabatu zela erran genuen baina, kopuruak gora egin du aurtengo azaroaren 24a arte aritu direlako lanean usazaleak. Azken egunetan harrapatutakoak gehituta 85 dozena eta erdirekin eman diote akabera sasoiari. Iaz bezala, Pirinioetan sare ehizan aritzen diren usategien artean hirugarren izan da Etxalar.

### Lesakako musika bandaren saioa

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Egu-



ARGAZKIA: ANA MARI INDAURU

### Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

Eguraldi hotzari kontra eginez, 20 lagun inguru bildu ziren urriaren 24 eguerdian, herriko plazan, *Egoera bortitzei aurre egin, gai zara* lelopean. Manifestuaren irakurketarekin akabera eman zitzaion elkarretaratzeari.

naren ekitaldien baitan antolatuta Lesakako musika bandaren kon-

tzertua izan zen abenduaren 3 eguerdian frontoian.



## ARANTZA

GIZARTEA → EGUERRIAK

# Olentzero eta Mari Domingi opari eta ikatzez gainezka etorriko dira herrira

Abenduaren 24an, herritarrak kantu-kalejirarako bilduko dira 15:30ean

Nerea ALTZURI

Gutuna idatzi ez duena, oraindik ez dabil berandu... Honez gero, gure etxeko ttikienek zirraborroak egin eta hizkirik hoberenarekin egingako eskutitza Olentzerori bidalia diote. Beti izaten dute eskatu beharrekoa pentsatua... bertze batzuk, maiz aldatzen dituzte jostailu edo dena delakoak... Tira, Olentzero eta Mari Domingi, herriarako pake eta ikatz "jorrada"

ere prestatzen ariko dira. Lan handia izaten dute aitzineko asteetan nola eguberri bezperan. Herri aunitzetako etxe aunitzetara ailegatu behar baitute!

Beurei ongi-etorria prestatzeko, eguberrietako kantuekin karriketan barna kalejira egingen da. Hitzordua, hiru eta erdietan, aurren goizago eginga da. Olentzero eta Mari Domingi musuak eta besarkadak eman ondotik, berendua izanen da. Beraz, urteroko moduan, kantak ongi prestatu eta hotzak kentzeko moduko ekitaldia izanen da kantuz eta dantza saioetxoekin.

## Elkartasun zozketa hilaren 31n

laz bezala, aurren ere,



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bide hezkuntzari buruzko jardunaldiak egin dituzte eskolan

Bide hezkuntzari buruzko jardunaldiak egin berri dituzte eskolan. Azaroaren 18an eta 22an, saio teoriko eta praktikoak egin zituzten: bideo emanaldia, trafikoko seinaleak ezagutu, frontoian txirindulako zirkuitu bat... Irudi hauetan, Lehen Hezkuntzako ikasleek frontoian egin zuten zirkuitua eta DBHkoek jaso zuten ikastaro teorikoa ageri dira.

Elkartasun zozketarako boletoak salgai dira. Urte zahar egunean, ilunabarreko 8etan, elkartasun poteoaren ostean eta herriko plazan, zozketa egingen da. Bi sari daude jokoan: Lehenengo saria: Arantzako produktuekin osatutako zare eder bat; bigarren saria berriz, Arantzako bildotxa.

Boletoak euro batean jarri dituzte salgai.

Beraz, nahi duenak badaki. Norbaitek eskei-niz gero, animatu eta parte hartu.

## Kabalgata

Datorren ilbeltzaren 5ean, ilunabarrean, errege kabalgata izanen da. Betiko moduan, eskolako guraso elkarteak, eguberrietako bertze ekitaldiak bezalaxe, hau ere antolatzen ari da.

## Antzezlanak eskolan

Aitzineko alean aipatu bezala, abenduaren 19an, ortzegun arratsaldeko 3etan, guraso eta herriar guzientzat antzerki emanaldia eskainiko da eskolako jiminasioan.

Bezperan, Etxalar eta Igantziko eskoletako guratso eta ikasleentzat egingen dituzte emanaldiak.



**GASOLINDEGIA**  
DENDA | OGIA | PRENTSA

Ordutegia: 06:00-22:00 egunero  
**URTE OSOAN IREKIA**

Zalain Industrialdea | BERA  
948 630 249



**ETORRI eta ezagutu gure ESKAINTZA BEREZIAK**



TRENTO HORTZ KLINIKA

# Trento Kids eta ortodontzia

Ortodontzia oso lagungarria da gaizki kokatuta dauden hortzak zuzentzeko eta ahalik eta estetikarik onena lortzeko odontologiaren edozein espezialitatean



Ortodontzia haurrekin nahiz helduekin erabiltzen dugu. Ortodontzia tratamenduak, oro har, uste duguna baino errazagoak eta laburragoak dira. Trento hortz klinikan zuretzat tratamendurik onena zein den aholkatuko dizugu.



**trento Kids**  
clínica dental

Trento, 8 · DONOSTIA · T. 943 316 944 · info@dentaltrento.es  
www.clinicatrento.com www.trentokids.com



*Haur baten irribarrea ikustea  
baino gauza ederragorik ba al da?*

**INSTALAZIOAK**  
Trento Hartz Klinikak instalazio moderno eta teknologikoki aurreratuak ditu. Txikien zerbitzu hobereana eskaintzearen, eta gurasoen lasaitasuna bermatzeko, gela eta laborategietan kamarak ditugu, gurasoek ondoko gela batietik interbentzioa jarraitu ahal izateko.

Gainera, haurak lasiago egoteko, 3D betaurrekoak baditugu, tratamendua burutu bitartean haurak marmazki bizidunak ikusteko.

**ZERBITZUAK**  
Trento Hartz Klinikak gurasoei etxeko txikien aho osasuna zaintzen lagundu nahi diegu lehenengo hortzak ateratzen direnetik.

**Zergatik aukeratu Trento?**  
Gure profesionalak, txikien hortzen osasuna zaintzeaz gain etorkizuneko arazoak saihesten dituzte ahoa nola zaindu irakatsiz: lehenengo hortzak agertzen direnetik gure odontologoek jarraipen-plan sakona egiten dute maloklusio arazoak ekiditeko.

**Tratamenduak:**

- Ortodontzia ikusezina • Odontopediatria orokorra
- Sortu aurreko kontsulta. Ba al zenekien haurdunaldian arazke asko duen dietak zure umearen aho osasuna baldintzatzen duela?
- Haur odontologia • Nutrizioa • Haurrentzako lasaigarriak

## NIRE SEME-ALABAK ORTODONTZIA TRATAMENDURIK BEHAR AL DU?

Komenigarriena da 4 eta 6 urte arteko haurrek aldizka azterketak egitea, gerta daitezkeen arazoak garai de-tektatzeko.

Erne egon behar dugu haurren hortz arkuetan leku gutxiegi da-goien edo hortzen garapenean eragina du-ten ohitura txarrak dituen zaintzeko (er-purua xurgatzea, txupetea gehiegi era-biltzea, ohiz kanpoko irensteko modu-ak...)



Aldi horretan (4 eta 6 urte arte-an) anomalia eskeletikoak zuzen daitezke, hezurrek duten ahal-men plastiko handiagatik. Hala-ber, funtzioan eta estetikan eragi-na duten hortz arkuen deformazio-ak ere zuzen daitezke. Adinik onena da higie-ne ohitura onak har ditzaten eta ha-ien inguruan aholku onak emateko. Be-ren artean estu erlasionatuak daude hozka-da, goiko eta beheko ebakortzen pilake-ta, aurpegi tipoa eta arnasa hartzeko mo-

dua. Ohiko adibidea ahotik arnasa har-tzen duten haurrak dira. Adin horrekin errazagoa da tratatzea, arnasa gaizki har-tzen duten pertsonak, ziur asko, hortz-haginak ongi ixteko arazoak izango di-tuztelako.

Garrantzitsua da ortodontziako aditu bati aholkua eskatzea, hazkuntzan arazo bat aurkitzen badugu, garai-z tratatzea ezinbestekoa delako, itzulezinak izan dai-tezkeen kalteak saihesteko.

## TRESNA IKUSEZINAK EDO INVISALIGN:

Hortzak lerrokatzeko bracket ak erabiltzen ez dituen metodoa da Invisalign deitua. Horien orde-z, beste lerrokatzaile batzuk erabiltzen dira, eta komeni da pazienteak ahalik eta denbora gehien erabiltzea (jateko bakarrik kentzen dira). Lerrokatzaileak 15 egunetik behin aldatzen dira. Beti bezala, garrantzitsua da ortodontzistak paziente-a aztertzea, sistema hori erabil dezakeen ala ez erabakitzeko.

## BERANDU AL DA ORTODONTZIA ERAMATEKO?

Ez. Helduen ortodontzia ohikoa bilakatu da. Hainbat aukera daude paziente helduentzat, baita hainbat ortodontzia tresna ere, hortzak lerrokatzeko edo zuzentzeko.

Helduen ortodontzia tratamendurako aukerak hauek dira: bracket estetikoak, ohiko ortodontzia eta ortodontzia ikusezina. Irribarre perfektua osasun onaren adierazgarri da.

## BRACKET GARDENAK EDO ESTETIKOAK:

Bracketa gardena da hemen, ohiko bracket metalikoa ez bezala, eta horrek eragin nabarmena du paziente helduaren itxuran.

# IGANTZI

KIROLA → IRRISARRI BIKE IZENAREKIN

## Irisarrin BMX eta mendi bizikletarako parkea izanen da

Euskal Herrian eta inguruan dagoen bakarra da

### TTIPI-TTAPA

Irisarriko jauregiko instalazioak irekitzen direnean, txirrindulazaleek Irisarri Bike izeneko bizikleta parkeaz gozatzeko aukera ere izanen dute. Bertan, jautsiera pistak eta Dirt Park bat ere izanen da, hau da, saltoak egiteko zirkuitua. Gisa honetako instalaziorik ez dago Euskal Herri osoan, ezta inguruan ere. Beraz, hasiberrietatik hasi eta profesional bitarteko mendi bizikleta eta BMX zaileak bildu nahi ditu, zailtasunaren arabera markatuak egonen diren zirkuitu ezberdinetan. Gai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Hegoi Ado beratarrak diseinatu du parkea eta berak kudeatuko du.

nera, inguruko mendietan ibiltzeko cross country ibilbideak proposatuko dituzte, GPSarekin gidatuak, baita Enduro ibilbideak eta hau-

rendako zirkuitoa ere. Txirrindulari eskola bat eta kategoria ezberdinetako taldea ere osatu nahi dituzte.

2010 urtera arte Dirt

Jumpean eta mendi bizikletan ibili zen Hegoi Ado beratarrak diseinatu du Irisarri Bike eta berak kudeatuko du instalazioa.



### Pertsonaia

Beñat TXOPERENA

Profesionala eta salto egiten du Euskadi Fundazioko talde kontinentalaren eskutik

Ez dira garairik onenak txirrindularitzarako, baina halere Beñat Txoperenak bere xokoa egiten du eta heldu den urtean debuta egiten du Euskadi Txirrindularitza Fundazioak errepideratuko duen talde kontinental berrian. Miguel Madariaga, Fundazioko presidentek eman zuen proiektuaren berri abenduaren 4ean. Oraingoz, 7 txirrindulari ditu taldeak: 2013ko taldeetik segitzen duten Carlos Barbero, Jon Larrinaga, Haritz Orbe, Mikel Aristi eta Illart Zuazubiskar eta afizionatutatik pasatutako Victor Etxeberria eta Beñat bera.

**KONPONKETAK**  
ere egiten ditugu

**%20**  
DESKONTUA  
SUKALDE  
ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziariak.com . www.bortziariak.com

**Arantza**  
aterpe  
albergas jantzeria enlasea

T. 948 634 179  
ARANTZA  
www.arantza.net



GIZARTEA → EGUERRIETAKO OSPAKIZUNAK

## Bi taldetan banatuta emanen diote neska-mutikoek ongietorria Olentzerori

Gero frontoian bilduko dira eskutitzak eta muxuak emateko

**Maiden PETRIRENA**

Abenduan sartu garen honetan Eguberriak aipagai ditugu. Abenduak 24an urtero bezala Olentzero etorriko zaigu Sunbillara. Arratsaldeko 4etan aterako dira neska-mutikoak bi taldeetan banatuak. Alde batetik 0-9 urte bitartekoak, beheitiko eskolatik eta ibilbidea herrian barna egingen dute. Koxkorak berriz, hau da 10tik goitikoak, zu biaren bertze alde egingen dute.

Guztiak akitutakoan frontoian geldituko dira Olentzerori muxuak, eskutitzak, etab... emateko eta txokolatexoxo goxoa dasatzeko.

### Kinto bestak

Kinto bestak ere jada hasiak dira ospatzen. Azaroaren 30ean 1945 eta 1946an jaiotakoak bazkari eder batekin ospatu zuten kinto besta, Ramotxok eta Muruak musikaz alaiturik.

Abenduaren 7an, berriz, zahartxeagokoa ospatu dute. Bertan adin andana nahasten dira, baina 90 urte inguru dituztenak ere joaten dira, beraz sasoi onaren seinale da.



ARGAZKIA: NEREA PETRIRENA

### Zaintzaileentzat antolatutako ikastaroa

Azaroaren 26an zaintzaileentzat antolatutako ikastaroa egin zen Herriko Etxeko bigarren solairuan. Aintzane Mariezcurrena erizaina izan zen ikastaroa eman zuena eta 32 interesatu agertu ziren bi orduko ikastaroaz gozatzera. Azkenean 15-20 minututan praktika egin zuten.

### Kantu Zaharren besta Ulibeltzatik Urdazubira

Azaroak 30ean ospatu zen hamargarren urtez segidan Kantu Zaharren besta ederra. Eratsungoa den baina Sunbillan bizi den Angel Mariezkurrenak antolatzen du. Aipatzekoa da besta eder hau Sunbillako Ulibeltzak Elkartean hasi zela eta begira zer arrakasta ederra rekin ospatu zen hamargarrena.

Aipatzekoa da sunbildar aunitzek segitzen dutela urtero urtero besta polit hau eta zoriontzekoa da nola ez antolatzailerik dugun Angel Mariezkurrena.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Herreratarrek akitu dute Openean

Diario de Navarrak antolatutako mendi bizikleta openean parte hartu dute zortzi asteburuz segidan Herrera anaiek. Azaroaren 24an Lizarran egin zen azkena eta bai Enekok, anai zaharrenak (argazkian), nola Koldok bigarren postua lortu zuten. Sailkapen orokorrean, Enekok ez zuen podiumean sartzeko aukerarik izan baina bai postu ederra lortu, laugarrena geldituz. Koldo, berriz, azpitxapelduna izan zen. Zorionak biei eta segi horrela.

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
**Nafarroan  
orain!**  
Berria erosi taldea

**IMANOL ITURRIA**  
ZURGINA  
Enpresa eta partikular  
T. 661 577 137  
E-posta: imaiturria@hotmail.com  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**Karsuk®**  
Muebles de cocina  
Meubles de cuisine  
Sukaldeko altzariak  
  
Karlos Pombar Sainz  
C/Sara 1 bajo local C  
31780 Bera (Na)  
T/F +34 948 625 430  
M +34 699 884 084  
info@karsuk.eu  
www.karsuk.eu

  
Kukuka  
KARLOS POMBAR SAINZ  
  
%10eko  
DESKONTUA  
pijama eta barruko  
arropetan

# DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 13KO JOSTUNEN EGUNEAN

## Urtea akitzeko hainbat ekitaldi Errekaren esku

**Mendiaren Eguna ospatuko dute hilaren 21ean**

### TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, ekitaldi ugari prestatu ditu Erreka elkarteak abendurako. Hasteko, hilaren 20an, Eguberrieta-ko saskiaren zozketa egingen dute elkartearen egoitzan 20:00etan.

Biharamonean, hilaren 21ean, Errekaren Mendiaren Eguna pres-

tatu dute eta inoiz baino interesgarriagoa dator. 7:30ean Leurtzako zirkora mendi irteera egingen dute, Errekak Bonozorrotzen duen buzoia bisitatuz. 12:30ean apustu haundia egingen da. Alex Txikon ezagunak 8 kanardi aizkoraz moztu eta 8 kilometro laisterka egin beharko ditu. Errekako kide diren Juan Teilletxeak eta Santi San Miguelek ere lan bera egin beharko dute, baina bakoitzak bere es-

pezialidadean. Eskola-ko frontoian egingen da apustua eta 5 euroko sarrera kobratuko da. 14:30ean bazkaria izanen da Kasino elkarte-  
an. 19:30ean, Alex Txikonon *Alpinismo y Salto Base* filma proiektatuko da zineman. Sarrera debalde izanen da.

Abenduaren 24an Saioara mendi irteera eta abenduaren 31n, goizeko Mendaurrerako irteeraz sain, VIII. San Silvestre lasterkea egingen da 18:00etan.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Udal instalazioak gas naturalera egokitzeko hitzarmena sinatu dute Herriko Etxeak eta Gas Navarrak

Gasoila eta propano gasa erabiltzen duten udal instalazioak egokitu eta gas naturala erabiltzeko elkarlan hitzarmena sinatu zuten azaroaren 28an Miguel San Miguel alkateak eta Celestina López Mor-te, Gas Navarrako zuzendariak. Lehenik, Askin Haur Eskolan, Musika Eskolan eta zineman egingen dute egokitze hori eta ondoko fase batean, propanoa erabiltzen duten ikastetxeetako sukaldeko eta liburutegiko instalazioak egokitu dituzte. Udalak herrian gas naturala hedatzeko asmoarekin bat dator hitzarmena, ingurumen aldetik garbiagoa eta eraginkorragoa delakoan. Donezteben 2009 urte akabailan sartu zen gas naturala eta lau urteotan, 4,5 kilometro kanalizazio egin dute eta 50 bat hartune egin dituzte. Erdigunean izan ezik, gainerako auzo gehienetara ailegatu da gas naturala, kasik 250 etxebizitzetara, hiru udal eraikinera eta hiru ostatu eta jatetxera.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Mendi Abesbatza bigarren Avilesko Nazioarteko Sariketan

Mendi Abesbatza Asturias-en egon zen azaroaren 30ean, Avilés-en egin zen XXX. nazioarteko abesbatzen sariketan. Lehenbiziko aldia izan da lehiaketa batera aurkeztu dela, eta hasiera ezin hobea izan du, bigarren saria lortu baitu (2.000 euro). Bost kantu prestatu zituzten: bat antolakuntzak paratutako nahitanahiezkoa zen, bertze bat Asturiasko kantu bat aukeran; gure inguruko bat ere eraman beharra zen, eta hau Kitolis izeneko lan ederra izan zen.

**ESKAINITZA BEREZIAK**  
sukalde eta etxetresnetan

**AMAIUR**  
mobiliario de cocina y baño

Rosa Seminario, 13 - 31740 DONEZTEBE  
T.948 450 400  
info@mueblesamaiur.com



GIZARTEA → ABENDUAREN 7AN

## Talo Egunarekin abiatu dira Eguberrietako ospakizunak

Hilaren 24rako  
hainbat ekintza  
prestatu dira

**Mattin LARRALDE**

Hurbiltzen ari dira Eguberriak eta hauekin batera guraso eta haurrak mugitzen dituzten ekintzak ere abian dira. Abenduaren 7an opil edo talo eguna egin zen eta urtero bezala opilak egin eta bertan ateratako dirua urtean zehar egiten dituzten ekintzak ordaintzeko erabiliko dute (antzerkiak, kontu kontalariak, Gabonetako ekintzak...). Abudo Eguberrietako argiak piztuko dira eta zuhai-

tza apainduko da zinta, bolatxoekin eta bakoitzak paratu nahi dituen apaingarriekin.

Abenduaren 24an olentzerorekin kantua egingen da herrian zehar, bainuetxean txokolata da eskainiko da, haurrekin ateraldia egingen da eta errege bezperan bazkaria.

Urteko azken alea dugunez, zorionak denei eta urte berriak bakoitzak amesten duena egi bihur dezala. Dagoe-na ez dadila txartu eta norbaitek baldin bada-ki magia egiten, deno-taz gogoratu eta egoe-ra puskaz hobegora aldatu dezala.



### Borrokan taldearen kontzertua

Azaroaren 30ean kontzertua izan zen Herriko Ostatuan Borrokan rock taldearekin. Bertara jende pila bat hurbildu zen. Oso talde ona entzun genuen eta orain arte ekarri direnen artean rockik gogorrena eskaini duen taldea izan da. Rock gauarekin eta bezperan izan zen antzerki gauarekin aste-bukaera mamitsua izan zen azaroko azkena.

Zorionak berriz ere horrelako ekintzak bul-



ARTXIBOKO ARGAZIAK

Opilak eginez hasi ziren Eguberrietako prestakuntzak.

tzatzen dituen jendea-ri, kasu honetan herri-

ko ostata eramatzen du-ten Itsaso eta Xabierri.

**BENI**  
arraindegia  
F. Nafarroa 2 - DONOSTIA  
T. 945 400 681  
Enkarguak hartzen dira  
Eguberri on!

**F. LANCHAS**  
Akupuladorea eta berriztatzailea  
Parket eta parket flotatzalea  
Jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**ttipi-ttapa**  
info@ttipi.net  
(0034) 948 63 54 58

**MENDIKO**  
SAGARDOTEGI MENUA  
Txorizoa sagardoan | Bakailao-tortilla | Bakailao-frijitua | Txuleta | Gazta eta inbixaurrak  
**MANTTALE MENUA**  
Kroketsak | Bakailao-tortilla | Txuleta | Gazta eta inbixaurrak  
**EGUNEKO MENUA**  
Joan-etorriko garraioa negoziatzeko aukera  
Gauetz irekia (guttieneko taldea 20 perta.)  
**ERRESERBAK:**  
948 630 302  
670 365 011  
**DESKONTUA**  
Bono hau erakutsita %10eko DESKONTUA (menu berezietan izan ezik)

**EDARIAK**  
**MANUEL TABERNA S.L.**  
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com

## ITUREN

KULTURA → AZAROAREN 22AN GOIZUETAN

# Iker Gorosterrazu azpitxapeldun izan zen Xalto Sariketan

Egoitz anaiak ez zuen finalerako txartelik eskuratzerik izan

## Arkaitz MINDEGIA

Iker eta Egoitz Gorosterrazu anaiak gazte gaztetatik ari dira bertso munduan, hainbat eta hainbat txapelketa, herri bazkari, bertso afa-ri, bertso poteotan.... bertsoak kantatuz indartsu eta gogotsu.

Bi anaiek hamabigarren Xalto sariketan parte hartu zuten, Egoitzek Iruñean jokatu zen kanporaketan parte hartu zuen eta Ikerrek berriz Leitzako kanporaketan. Egoitz ez zen pasatu finalera, baina bere anaia bai, sailkatu eta lan polita egin zuen Goizuetan, bigarren geratu baitzen, Mikel Lasarte txapeldunaren ondotik.

Bertzalde, Egoitz Gorosterrazuk Iruñean ospatzen den Bertsoaroako ekitaldi batean parte hartu zuen, Maddi Sarasua, Nerea Ibarzabal, Amaia Iturriotz, Mikel Lasarte eta Irati Majulorekin batera. Urte berriarekin ere han eta hemen ikusiko ditugu bi anai hauek bertsoak kantatzen.

## Santo Tomas eguna

Urri bukaeran ireki zen Aurtizko Ostatuak itxura berri eta polita aurkeztu digu. Gogotsu daude hiru nagusiak eta Donostian eta hainbat lekutan ospatzen den Santo Tomas eguna, Aurtizko ostatuan ere ospatuko da. Abenduaren 21ean hainbat ekitaldi izanen dira egun guzian. Txistorra pintxoak izanen dira euskal musikaz lagunduta. Arratsaldean, berriz, bingoa izanen da: Ze-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Iker Gorosterrazu, Xalto Sariketako finala jokatu zuten bertze bortz bertsolariekin batera. Ondoan, Mikel Lasarte txapelduna.

ringo eta Tomaxa zerrikumeak zozketatuko dira. Gauean euskaraokea izanen da. Aurtizko Ostatuak ohartarazi dutenez, euskal jantziekin edo baserritarrez jantziak etortzen diren guziek pintxoak doan izanen dute.

## Eguberriak

Eguberriak ate joka ditugu eta etxeetan laister hasiko dira pinuak, jaiotzak eta apaingarriak jartzen. Haurrak olentzerori eskutitza idazten ariko dira. Egun horietan hainbat ospakizun izanen dira. Eguberriak hasteko Pulunpa eskolakoak hainbat kantu, ikuskizun, dantza ariko dira presta-

tzen azkeneko egunean guraso, irakasle, ikasle eta herritarrei erakusteko.

Eguberri bezperan Aurtitzen eta Iturenen arratsalde partean Olentzero hartu eta kale ibiliko dira gazte txoak, Eguberrietako abestiak kantatuz. Azken urteetan Iturenen olentzeroren bisita ere jasotzen dute. Horretarako sekulako ongi etorrira prestatzen dute, herriko joaldunak suziak eskuetan dituztela ibiltzen dira eta herriko ar-

giak itzali egiten dituzte. Bidenabarrean plazan jaiotza antzeztzen dute.

Errege bezperan akituko dira Eguberrietako ospakizunak. Arratsaldean gazte txoak joareak astintzen hasiko dira, Aurtizko eta Iturengo xoko eta bazterrak goxatu eta alaitzen. Gau partean helduen txanda izanen da, Aurtiz, Ituren eta Zubietara bixita eginez. Joare soinuez gain, parrandarako aukera ere izanen da Errege bezperan.



## Ba al zenekien

Iturengo joaldunek abenduaren 3ko Euskarenen Egunean Elizondoko kalejiran eta ekimean parte hartu zutela.



### ABENDUKO ORDUTEGIA:

**08:00-18:00**

ABENDUAK 21 eta 28 (LARUNBATAK)  
09:00-13:30

ABENDUAK 24  
08:00-13:00

ABENDUAK 31 ITXITA

*Produktu guztiak zure esku*

Zalein Ind. 31780 BERA T. 948 625 016  
F. 948 625 036 www.martiko.com





## ZUBIETA

GIZARTEA → BERRIEMAILEAK, LANGILEAK ETA LAGUNTZAILEAK BILDU ZIREN AZAROAREN 30EAN

# Xorroxinen urteko bazkaria giro onean egin zen estalpean

Hamahiru urtez herriko berriemaile izan zen Juliana Mutuberria ere gonbidatua zegoen

### Fermin ETXEKOLONEA

60 lagun inguru bildu ziren Zubietako herriko estalpean azaroaren 30ean, Xorroxingo langile, berriemaile eta laguntzaileek urtero egiten duten bazkarian. Goiz-goizetik lurreko sua piztua zuten eta eguraldi hotz eta euritsuari aurre eginez, giro onean joan zen otordua, kontu kontari. Xorroxingo langileen eta udalaren laguntzarekin prestatu zuten mahaia eta giro onean pasatu zuten bazkaria eta bazkalondoa.

Aipamen berezia merezi zuen Juliana Mutuberriak, 13 urtez Zubietako berriemailea izan baitzen eta gaur egun hala ez bada ere, bazka-



ARGAZKIA: AITOR BABAZE

### Sei basurde ehizatu zituzten abenduaren 3an

San Frantzisko Xabierkoaren egunean sei basurde bota zituen herriko ehiztari koadrilak. Bistan da, punteria onarekin dabilzala.

rira gonbidatu baitzuten. Beti bezala umoretsu ibili zen Juliana.

### Herriko Ostatuan solasaldia

Abenduaren 20ko ilunabarrean energia berriztagarriei buruzko solasaldia eskainiko da Herriko Ostatuan. Pelt, biomasa eta gisa-

ko gaiak berogailurako nola erabili izanen dute hizpide.

### Joaldunak Euskal Kantu Zaharren Egunean

Euskal kantu zaharren egunean parte hartu zuten aurten ere Zubietako joaldunek Dantxarinean. Zortzijo-

an ziren eta joareak jo ez ezik, ohorezko sarrera ere beraiek egin zuten, isopoak altxatuta, azpitik pasatu baitziren bazkaltiarak.

Beste dozena erdi bat herritar ere bertan izan zen bazkaltzen eta urtero bezala, giro ederrean eta luzez aritu ziren kantari.

### DONEZTEBE

Kriston zozketa eta erakusleho lehiaketa egingen dira Eguberrietan

### TTIPI-TTAPA

Doneztebarrak merkatari eta zerbitzu elkarteak Eguberrietako hainbat ekitaldi antolatu ditu.

Alde batetik, urtero bezala, "Kriston Zozketa" egingen dute. Boletoak, bazkide diren saltokietan erosketak eginez lortu ahal izanen dira.

Zozketa abenduaren 28an burutuko da eta ondotik txistorrada egingen dute.

Bertzalde, Erakusleho Lehiaketa ere egingen dute elkarteko saltokien artean. Horretarako, lehiaketan parte hartu nahi duten erakuslehoen zerrenda bat egingen dute eta jendeak bere botua eman ahal izanen du. Botoa ematen dutenen artean, zozketa bat egingen dute eta bertako produktuez osatutako saski eder bat emanen dute.

Azkenik, errege bezperako kabalgatan ere parte hartuko dute karroza batekin.

  
**"TELLETXEA"**  
*Lorazaintza*

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatzeko sistema automatikoak -
- Kimaketak -



**John Telletxea** Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa  
LESABA • T. 619 418 683 • john.telletxea@hotmail.com  
www.telletxealorazaintza.com

**ARTEKARI TALDEA**  
**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

|                                    |                                           |
|------------------------------------|-------------------------------------------|
| • Langile autonomoak               | • Diru-laguntza ezberdinak                |
| • Nekazariak eta mendi langileak   | • Kontabilitateak                         |
| • Nominak eta Aseguro Sozialak     | • IVA eta IRPF                            |
| • Lan-Kontraburuzko laguntzak      | • Errenta aitortpenak                     |
| • Enpresa berri ezberdinen sortzea | • Elbarritasun eta jubilazio espedienteak |
| artekari@artekari.com              | • Bidegarritasun planak eta aurrekontuak  |

LESABA: Biltzila, 71-behea • Tel: 948 637 050 • Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 • Tel: 948 133 328 • Faxa: 948 133 713

## SALDIAS

HISTORIA → ZENBAIT IDAZLAN ARGITARATU ZITUEN

# Jose Erasun Mutuberria, XIX. gizaldiko apezaz

Harenak dira herriko batek idatzi dituen lehen liburuak

## Markel LIZASOAIN

Herri ttikia baita, liburu gutxi eskribitu izan du du hemengo jendeak. Bakarren batek halakoren baten ezagutza baldin badu, pozik hartuko nuke horren berri.

Jende handien kontuak ekarriko ditut oraingo aldian. Izan ere, XIX. gizaldian liburuak ateratzea halakoen esku bakarrik zegoen.

Juan Jose Erasun Mutuberria Apezenean jaio zen, eta apaiza izan zen bere bizian. Familia onekoa izan behar zuen, eta ikasketa handiak egin zituen, baita zenbait lan argitaratu ere. Harena da hilerrian dagoen harrizko panteoia. Don Tomas zenak eta Xabier Erizek haren obra ikertua dute bakoitzak bere aldetik. Hain zuzen, Jose Erasun horrenak dira saldiastar batek idatzitako lehen

gauzak. Tradukzioak edo itzulpenak egin zituen gehienetan.

## BOST LAN, BEDEREN, EGIN ZITUEN

Zugarramurdin urte batzuk eman zituen apez, eta erdaratik dotrina bat itzultzeko agindu zioten, baita idatzi ere, 1857. urterako. Hura da ezagutzen zaion lehen lana, eta Zugarra-murdiko euskarari dago eskribitua. Urte horretan bertan, Saldiasera etorri zen ofizioetara. Handik urte batzuetara, *Orreaga* baladaren itzulpena egin zuen, eta Saldiasko euskarari paratua dagoela ematen du. Zortzi pasarte ditu, eta honatx lehenbizikoa:

*“Gauerdia. Erregue Carlomano Auritz-be-rrin dago bere ejerzitua-requin. Ceiru illunin ezta agueri ez illarguiric eta ez izarric: urruti suzco gar aundiac ditzaiatcen dute mendiarte; Fransesac cantari daude errian; Altabizcargo ingruetan aditcen dire otsoaren izugarrizko auriac, eta Euscaldunac zorroz-*

*ten ttuzte bittartin beren tirarmac ta aizcorac lba-ñetaco arraitcetan”.*

Delako balada horren lana Luziano Bonapartek agindu eta ordaindu zion. Luziano hori Napoleonen iloba zen, eta hizkuntzen gainean estudio handiak egiten zituen Europa guzian. Euskara herri batetik bestera nola aldatzen zen ikasi nahi zuen, eta, horretaz, herrian herriko jendea agintzen zion honelako edo halako lanak tradutzitzeko, eta berari entregatzeko.

## DOTRINA BATEN ITZULPENA

1881. urtean, Elizaren bitartez atera zuen Jose Erasunek beste lan bat, Iruñean, zentsura pasatu eta gero. Elizak ontzaz eman behar izaten zituen liburuak argitaratu baino lehen, inor ez zedin haren haritik bereizi, eta ematen du dena ez ziotela ametitu. Liburuaren hasieran, agiri bat heldu da zentsura ongi pasatu zuela dioena, baina gauza ttikiren bat edo beste ez

Euskara aldizkarian argitaratu zituen zenbait lan apez saldiastarrak.



ziotela ametitu; ez dute esaten zer, bestela ez zen zentsura izanen!

Liburua bera dotrina baten itzulpena edo tradukzioa da, eta itzulpenaren aurretik, Erasunek pare bat orritan esplikutzen du euskaraz eskribitzeko zer letrak ibili zituen. Konparazio batera: orain, *xuri* idazten dugu, eta hark *ssuri* eskribitu behar zela esan eta halaxe eskribitu zuen. Eta orri pare horretan egin zioten, duikabe, zentsura. Ohar guziak ez zizkieten onartu, nonbait.

Laugarren lan bat: otoitz egiten ikasteko lan bat ere entregatu zuen Iruñean, baina horren arrastorik ez da egundaino.

Bosgarrena, gaztelaniaz: dotrina otsailean

argitaratu zioten, eta handik bi hilabetera, *Revista Euskara* izeneko aldizkarian, haren lan bat agertu zen, euskaraz eskribitzeko zer letrak erabili behar ziren esplikatzeko. Beharbada, lan horretan egongo dira dotrinan zentsuratu zizkieten oharrak.

Dotrinaren pasarte bat ekarriko dut honata, nola egin den erakusteko (ez dut harra-patu esaldi bat bera ere elizako hitzen bat ez dakarkina, baina ez diogu zentsurarik eginen): *“Muttikoak eta nesska-koak ikasiko dute Katezismo au memoriaz; ba-ño persona aundituak oroitzen direnak lenago ikasi zuten dotrinaz, leituko dute au beñi eta berriz konsiderazioare-kin”.*

## APARAN, S.A.

**ERIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarniak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## Lizun

**GAZTANDEGIA**

Sunbilla • Tel: 948 450 862

**Gure Haragia**  
**Nuestra Carne**





BAZTAN, BERA, DONEZTEBE ETA LESAKAKO MERKATARIAK

## Auto bat zozketatuko dute eskualdeko lau merkatarik

*Denok bat elkarlanean* lelopean ekimen berria antolatu dute Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako merkatarik elkarteek. Kotxe bat zozketatuko dute Doneztebeko Talleres Santestebanen laguntzarekin, Dacia Sendero autoa, zehazki errateko.

Guztira 12.000 boleto paratu dituzte salgai eta hiru eurotan eros daitezke lau elkarte hauekide diren saltoki eta zerbitzuetan. Zozketa 2014ko urtarrilaren 31n egingen dute Donezteben, Malerreka Mankomunitatean, 14:00etan. Zenbaki sarituaren jabeak otsailaren 28ra arteko epea izanen du agertzeko, eta behin epe hori pasatuta saridunik agertzen ez bada berriz egingen dute zozketa, martxoaren 7an.



Merkatariek azaroaren 29an aurkeztu zuten ekimen berria Donezteben.

### Eguberriek begira lanean

**Baztango Bertan elkarteak** dagoeneko prest dute 2014ko egutegia, argazki lehiaketako irudirik onenekin osatua. Baina horrez gain, bonoetan 2.500 euro zozketatuko dituzte: 200 euroko bortz bono eta 100 eta 50 euroko hamarna bono. Horretarako, Bertaneko zigiluekin txartel batzuk osatu beharko dira eta zigiluak erosketak eginez lortu ahal izanen dira. Zozketa abenduaren 26an egingen dute eta bonoak urtarrilaren 6a baino lehen gastatu beharko dira. **Berako Larun Haizpe Elkarteak** aterkien kanpaina abiatu dute. 64 aterki banatu dituzte elkarte denda eta zerbitzuetan eta aterkia behar duen bezeroak hartzeko aukera izanen du, eta hartu duen tokira itzultzeko modurik ez badu, bertze denda edo zerbitzuren batean utzi ahal izanen du. **Doneztebeko Doneztebarrak Elkarteak**, abenduaren 28an *Kriston zozketa* egingen dute opari ederrak zozketatuz eta ondotik, txistorrada egingen dute. Boletoak bazkide diren saltokietan erosketak eginez lortu ahal izanen dira. Erakusleho lehiaketa ere egingen dute eta botoa ematen duten guztien artean bertako produktuen saski bat zozketatuko dute. Eta Erregeen kabalgatan karroza batekin parte hartuko dute. **Leitzako Kaxkabeltza Elkarteak**, bost sari eskuratzeko aukera izanen dute urtarrilaren 4ra arte Leitzako dendetan erosten dutenek: 350 euroko saria, 250 eta 150 euroko bonoak eta 75 euroko bi sari. Zozketa urtarrilaren 5ean egingen dute. **Lesakako Zerbitzuen Elkarteak**, abenduaren 2az geroztik elkarte denda edo zerbitzuetan egiten den erosketaren truke loteriarekin saritzen dituzte bezeroak. Abenduaren 24an, berriz, Olentzorekin eta Jaiotzarekin atera eta hobekien kantatzen duten taldeei 100 euroko sari bana emanen diete.





**ainhoa**  
estilista



*Eguberri on!*

**948 638 170**  
**ORDUTEGIA**  
Asteartetik ostiralera:  
09:30-13:30 | 16:00-19:00  
Larunbatetan : 09:00-14:00  
Astelehenetan itxia

**Albistur, 63B-an LESAKAN**

**ATSEGIN HAUNDIZ  
GONBITATZEN DIZUGU  
GABONETAKO PROMOZIOETAZ  
GOZATZERA  
KOSMETIKAKO PRODUKTU  
ETA ZERBITZUETAN  
DESKONTU INTERESGARRIAK  
AURKITU DITUZU**

**ORDUTEGIA:**  
Asteartetik ostiralera: 09:00-13:00-17:00-19:00  
Larunbatetan: 09:00-14:00

**OYÁ**  
EDERTASUN ZENTROA  
Legia, 45 - behea • BERA  
T. 948 631 005  
M. 698 499 192 • 698 499 204  
www.facebook.com/estudio.oia



**LES Pek@S**  
HAURRENTZAKO ARROPA 0-14 URTE

**EGUBERRI HAUTAKO  
EROSKETETAN  
DESKONTU IZUGARRIAK  
EGUBERRI ON!**

Etrogibela, 4 behea  
**DONEZTEBE**  
T. 948 109 033  
lospelas@hotmail.com



## EGUBERRIETAKO ELIKADURA I

# Jan-edanarekin gehiegikeriarik ez egiteko aholkatu dute eskualdeko adituek

Jan, edan, kantatu, topa egin eta gozatzeko egunak izaten dira Eguberriak. Baina horrekin batera ohikoak izaten dira gehiegikeriak. Horren seinale biharamuneko tripako mina, buruko mina, botatzeko gogoa, idorreria, nekea... Adituek diotenez, batez bertz bizpahiru kilo hartzen ditu pertsona bakoitzak Eguberrietan eta horrez gain, digestio arazoak ere ohikoak dira. Baina kontua ez da otordu berezi hauek baztertzea, gehiegikeriarik egin gabe jatea baizik. Turroiak, txokolateak, mazapanak edo polboroiak jan bai, baina neurrian. Ospakizun egun hauen atarian, elikaduran desorekak saihesteko zer egin daitekeen jakiteko aholku eske jo dugu eskualdeko adituengana. Lorea Agirre Doneztebeko Kimetz belar-dendakoak, Ixiar Andueza Berako Elika dietetika eta elikadura zentrokoak, Sandra Legasa Lesakako Orea nutrizioa eta dietetika belar-dendakoak eta Iñigo Belzunegi Elizondoko Natura Etxeak eman dizkigute gomendioak.

## Nola bilatu oreka?

Kimetz belar-dendako Lorea Agirreren hitzetan, «Eguberrietan gehiegi jan eta edaten dugu». Bere ustez, egokiena besta egunetako otorduak «arinagoak» izatea izanen litzateke, «zer-bait berezia egin daiteke hainbertze jan gabe». Orekako Sandra Legasak «frenoa» paratzen jakin behar dela dio: «gehiegikeriak tarteka egin daitezke baina frenoa jartzen ere jakin behar da». Gaineratu digunez, «ospakizunak bukatutakoan gure elikadurak normaltasunera bueltatu behar du». Elikako Ixiar Anduezaren arabera, «helburu garrantzitsuen a gehiegikeria horiek konpentsatzea da». Eta Natura Etxeako Iñigo Belzunegik uste du, «besta egunetan prestatzen diren gauza goxoez gozatu behar dela, baina tarteko bertz egunetan barazkiak eta lekaleak janez, adibidez, gehiegikeria horien ondorioak guttitzen ahal direla». Eguberrietako otorduak orekatzeko, «egokiena gozo eta proteina kopurua jeistea da» Agirrrentzat, «barazki gutti eta haragi, gozoki eta alkohol gehiegi izaten baitira mahai gainean». Legasak, berriz, biharamunean arinago jatea aholkatu du: «egun seinatu horietan gehiegi jaten badugu, ondoko egunetan salda, barazki egosia, entsalada... jan. Bigarren platerak olio guttiarekin plantxan edo labean eginak, eta postretarako fruta ale bat...». Baraurik egotea «akats larria» dela erran digu Anduezak: «horrek ez du deusetarako balio. Gehiegikeriak



«Gehiegikerien ondotik, dieta orekatu batera ahalik eta azkarren bueltatzea izaten da aholku nagusia»

Lorea AGIRRE | Kimetz, Doneztebe



«Eguberrietan ongi gosalduta behar da egunero, baraurik ez egoten saiatu behar da antsietaterik ez edukitzeko»


Ixiar ANDUEZA | Elika, Bera



egun jakin batzuetan egiten saiatu beharko genuke, eta ahalik eta guttien, eta ondorengo egunetan normaltasunera itzuli elikagai osasuntsuagoekin». Kopuruak «zaintzeaz» aritu zaigu Belzunegi.

Egunerokoan jaten denaren alderatuz, Eguberrietako elikagaiek «kaloria dezente gehiago» dutela erran digu Natura Etxekoak, eta «kaloria bikoitza» izan deza-keela zehaztu digu Kimetzekoak: «lehen platerean, egunerokoan, barazkia edo lekalea edo pasta edo arroza sartu beharrean, Eguberrietan sarrerakoak izaten dira, ogi gehiago eskatzen dutenak eta normalean mahonesarekin lagunduta doan baten bat; bigarrenaroko, egunerokoan, haragia edo arraina jaten da, eta Eguberrietako otorduetan arraina lehenengo eta haragia gero, eta gainera, haragi gorria. Hor ere alde handia dago. Bazkalondokoa fruta edo jogurta izan beharrean, Eguberrietako gozoki eta postreekin ordezkatzeko dugu. Eta edariari dagokionez, zer erranik ez. Ura edo ardo pixka bat edan beharrean, freskagarriak, zumo enbasatuak, normalean baino ardo gehiago, kopak... edaten ditugu». Eguberrietan jaten denak «kaloria pila bat, baina nutriente eta onura gutti» duela aipatu digu Oreka. Eta Elikakoak datuak eman dizkigu: «egun-ean behar ditugunak baino 700-800 kaloria gehiago sartzen dira, eta alkoholun edari aunitz hartzen badira, kopurua aunitzez haundiagoa da».

Hala izanda, gehiegikeria horien aitzinean, zer egin? Legasak honakoa gomendatu digu:



«Tarteka gehiegikeriak egiten badira ez dago arazorik, baina fretoa jartzen jakin behar da»

Sandra LEGASA | Oreka, Lesaka



«Eguberri garaian, egun bereziak ez diren frutak, barazkiak eta arraina jatea komeni da»

Iñigo BELZUNEGI | Natura Etxea, Elizondo

**Jaio berrientzako behar duzun guztia**

**losta mendi** *Teikia*

Bezero txartelarekin sekulako abantailak  
Eskaintza bereziak

**GIPUZKOAKO 500m² erakusketarik zabalena duen puerikultura denda**  
Easo, 51 - Donostia - T. 943 470 244

Artaleku, 3 • IRUN • T. 943 638 223  
www.maxibebé.org

**maxibebé**

**Kimetz Belardenda**

**EGUBERRIETAKO PRODUKTUAK**  
Saskiak • Hotz bero produktuak  
Kandelak • Mineral bitxiak • Sona jeroak

Turroiak, polboroiak, txanpaina ardo ekologikoak...

Dieta personalizatuak - Apiterapia  
Naturopatia - Masajeak

**ZORIONAK ETA EGUBERRI ONI**  
Leizakoa errep. 3 beheko | DONEZTEBE  
Tel. 948 451 473 | kimetzelardenda@hotmail.com

**Zorionak eta eguberri on!**

**Garbi ogi & coffee**  
KAFETEGIA - OKINDEGIA

TURROIAK - CAVAK - ARDO BEREZIA  
ERREGE ERROSKOAK

Eguberrietako loteak egiten ditugu

**Urteberri egunean goizez irekia**

Iturilandeta, 6 • BERA • 948 625 673  
ORDUTEGIA: 07:30-13:30 / 16:00-20:30 • Asteazken arratsaldetan itxia

**TABERNA ZAHARRA**

Gizon eta emakumeendako arropa-denda  
Gortinak eta etxerako arropak

ZATUZ GABONETAKO OPIA EROSTERAI

Merkatarien karrika, 11 - DONEZTEBE  
T. 948 450 007





[www.mueblesordoki.com](http://www.mueblesordoki.com)

Plaza Zaharra, 27 | Erakusketa: Bittiria | LESAKA  
T. 948 637 780 | e-posta: [info@mueblesordoki.com](mailto:info@mueblesordoki.com)

SUKALDEAK | DEKORAZIO PROIEKTUAK | EGONGELAK | LOGELAK | SOFAK | ARMAIRU ENPOTRATUAK | ILUMINAZIOA | OSAGARRIAK

Silletarako zakuak

Haurrentzako artikulak

Funda nordikoak Edredoiak

Toallak

Maindireak

*Ordoki Altzariak besta zoriontsuak opa dizkizue!*

# Biok

# %60

ARTEKO  
DESKONTUAK

Eguberrietako eskaintza berezia  
**arropa eta osagarrietan!**

IBARDIN - BERA





## EGUBERRIETAKO ELIKADURA II

«menua pentsatu ondotik erosketak egiteko zerrenda bat egin eta beharrezkoak direnak bakarrik erosi. Eguberriak hasi aitzinetik, turroi, polboroi eta gaine-rakoak erosi egiten ditugu, baita probatu ere eta Erregeen ondotik oraindik segitzen dugu, soberan gelditu den guztiarekin zer egin ez dakigula. Janari gehiago prestatu edo erosten badugu, sobranteekin ez dugu sekula buka-tuko». Agirrek, bere aldetik, «mahai gainera jaki guttiago ateratzeko» aholkatu du, «horrela ere berdin-berdin ospa daitezke Eguberriak». Beretzako hankasartzerik haundiena «jan eta edaten dugun kopurueta dagoelako». Anduezak kirola egiten segi-tzearen garrantzia azpimarratu du: «kirola egiten segitu edo honen maiztasuna eta intentsita-tea igo, gehiegikeriak konpentsatzeko». Horrekin batera, egunero «ongi gosaltzeko» gomen-datu du: «baraurik ez egoten saiatu behar da, antsietate momenturik ez edukitzeko, mantso jan eta ongi mastikatu, fruta eta barazkiak ez alde batera utzi, ura edan, infusio digestibo eta depuratiboekin lagundu digestio pisutsuak ez izateko, eta saihestu goxokiak pikoteoa». Eta Belzunegik «egun berezietan ere kopuruari pixka bat erreparatzea» proposatu digu, «hi-labete guztian aunitz eta nahi duguna jaten badugu orduan izaten dira ondorioak».



## Eguberrien ondotik dietistengana aterabide bila

Eguberriak bukatuta, jendeak bertzelako erronkak jartzen dizkio bere buruari eta dietetika kontsultetan hori nabaritzen omen da: «urte berriari eskatzen zaion helburuetako bat izaten da», dio Agirrek. Eta Legasak Eguberrien ondotik kontsultara «jende franko» hurbiltzen dela baieztatu digu: «elikadura zaintzeko motibazioa areagotzen da». Iritzi berekoa da Andueza ere: «gehiiegikeria guztien ondotik, ez dugu gure burua ongi ikusten, hazituak sentitzen gara, ahulagoak, gogorik gabe, eta urte berri hasieran beti helburu positiboak jartzen ditugu berriz ere normaltasunera itzultzeko. Aunitzek, Eguberrien aitzinetik ere, dietan 'kitkat' bat egiten dute, gero urtarilean berriz zorrotz hasteko». Belzunegik Eguberrien ondotik, «mota ezberdinetako dietak egitera jende gehiago etortzen dela» aitortu digu, «batez ere dieta depuratiboak egitera. Janariaren intolerantzia test-ak egitera ere hurbiltzen da jendea». Halakoetan, aholku nagusia «dieta orekatu batera ahalik eta azkarren bueltatzea» izaten dela erran digu Kimetx belar-dendakoak. Gaineratu digunez, «otorduak barazkiekin hastea eta bigarren platerarako haragi gorria aste pare batez alde batera uztea izaten da aholkua. Urak ere garrantzia izaten du, egin ditugun gehiegikeriak konpentsatzeko». Orekakoak «egunerokora bueltatzeko» gomendioa ematen die hurbiltzen zaizkionei: «ospakizun egunak bukatuta, lanera itzultzen garen modura, gure elikadurak ere normaltasunera bueltatu behar du. Gehiegikeriak noizean behin egiten badira arazorik ez dagoela argi uztea gustatzen zait, baina egunerokoan frutak, barazkiak, arraina, zerealak, lekaleak... izan behar dute gure menuen osagai». Bide beretik jo dute Elikakoak eta Natura Etxeakoak ere: «Eguberrien ondotik lehenbailehen elikadura osasuntsuarekin eta kirolarekin hasten saiatu behar dugu, eta horrela egiten bada, 7-10 egunetan berriz pixka bat hobeki sentitzen hasiko gara», erran digu Anduezak. Eta Belzunegik, berriz, hauxe adierazi digu: «dieta garbiak egiteko aholkatzen dugu. Eta gibela eta besikula garbiketarako egitea eta janari eta produktu drenanteak hartzea ere lagungarria da». Denaren gainetik, hala ere, Belzunegik dioena: «gustura jan, pasatu gabe».

| EGUBERRIETAKO ELIKAGAIK |              | EGUNEROKO ELIKAGAIK        |          |
|-------------------------|--------------|----------------------------|----------|
| Elikagaiak              | Kaloriak     | Elikagaiak                 | Kaloriak |
| Turroi zati ttiki bat   | 120-190 Kcal | Bi platano ttiki           | 150 Kcal |
| Polboroi bat            | 160 Kcal     | Bi sagar ttiki             | 150 Kcal |
| Mazapan bat             | 120-190 Kcal | Maria galleta bat          | 25 Kcal  |
| Bi bonboi               | 140 Kcal     | Dilista platerkada         | 230 Kcal |
| 2-3 piku lehor          | 140 Kcal     | Garbantzu platerkada       | 230 Kcal |
| 5-6 aran lehor          | 140 Kcal     | Jogurt gaingabetu naturala | 45 Kcal  |

Taula hau Ixiar Anduezak utzitako datuekin osatua izan da.

**TXALUPA, S.I.** ARRADEGIA

Arrain eta maritxo freskua aste osoan  
Enkarguak hartzen ditugu

Zorionak eta Urteberri on!

Kanttonberri, 3 behea · BERA  
T. 670 321 202 · 948 631 575

948 631 218  
Kanttonberri 1. BERA

**KATEA-BIKE**

BIZIKLETA SALMENTA  
ETA KONPONKETA

Zorionak eta urte berri on!

**the cotte**  
ZORIONAK

Kanttonberri, 5 • 31780 BERA • Tel. 948 625 285

# baztan**oil**

ELIZONDO | [www.baztanoil.com](http://www.baztanoil.com)

## GASOLIOA ETXERA

**24**  
ORDUTAN  
ETXEAN

T. 948 452 309 | M. 677 310 009



Repsol Gasolinen  
haztearekin  
komertzioa

### ZATOZ GURE DENDETARA

**ABENDUAN**  
IGANDE ETA  
JAI EGUNETAN  
**IREKIA**





## EUSKARAZKO PRODUKTUEN BILDUMA

# Kalean da Euskarazko Produktuen Katalogo berria

Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia bilduz, kalean da Euskarazko Produktuen Katalogo berria. Urtero bezala, aldizkariak, musika, komikiak, informatika, liburuak, filmak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako materialak jaso dituzte Euskal Herriko hainbat udal eta mankomunitatek, eta helburua euskarazko produktuak sustatzea da, horiek erosteko zein oparitzeko aukera eskainiz. Urteik urtera indartzen doan ekimena da: Euskarazko Produktuen Katalogoa 1998. urtean argitaratu zen lehendabiziko aldiz. Nafarroako udal gutti batzuek abiatu zuten ekimena orduan, eta 135 toki-entitate dira gaur egun parte hartzen dutenak, 200 udaletik gora guztira.

Bi euskarritan argitaratu ohi dute Katalogoa eta aurten ere halaxe izan da. Alde batetik paperezko edizioa dago eta hau urtean behin argitaratu eta zabaltzen da, eta 130.000 aletik gora banatzen dituzte Euskal Herrian. Bertetik, Interneteko ataria dago. [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) web orrian, paperezko katalogo osoa ikus daiteke, baina horrez gain, paperezkoan sartu ez diren produktu gehiago ere aurki daitezke, eta produktueta edo argitaletxeetara zuzenean joateko loturak ere ematen ditu. Maiztasunez eguneratzen da, urtean zehar argitaratzen diren produktuak kontsultatzeko aukera emanez.

## Gurasoen artean harrera ona du

Euskarazko Produktuen Katalogoa tresna erabilgarria dela ondorioztatu zuen joan den urtean Azti ikerketa enpresak. Katalogoa zenbaterik ezagutu eta erabiltzen duten jakiteko inkesta bat egin zuen eta horren arabera, banatzen den herri eta hirietan 16 urte bitarteko haur eta gazteen gurasoen %41ek ezagutzen dute. Ezagutzen duten gurasoen artean ongi baloratua da, zerotik hamarrerako tartean, zazpitik gorako puntuazioa eman baitzieten paperezko bertsioari eta Internetekoari.

Urteko garai hau opariak egiteko garaia dela kontuan hartuz, euskarazko produktuak oparitzeko aukera paregabea eskaintzen du Katalogoak.



**BESTA**

16 Rue du port | 64700 Hendaya  
+33 (0)559 48 37 58

Gabonetako  
oparigailak  
JANTZIAK  
PETARDOAK, SUZIRIAK

**BESTARAKO GUZTIA!**

**Gabonetako jostailu guztiak**

Aprobetratu gure txolito-prezioak  
Betidanik ahoikularitza eta arreta pertsonalizatua

Avda. Letxunborro 86  
IRUN 943 45 75 10

Karmelo Etxegarai 2 (Benta Berri)  
Donostia 943 22 79 10

Prim 59 Donostia  
943 45 53 00

**Josta**  
Arendi

**Merkaopari**  
[www.merkaopari.es](http://www.merkaopari.es)

Urtero bezala, berriz ere iritsi dira Eguberriak

Beti bezala konfiantzar eta preziorik onenean **Zorionak**

**CENOR JAURENA**

Instalaciones **JAURENA S.L.**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDEKO ALTZARIAK  
ANTENAK

Julio Caro Baroja, 6 • 31780 BERA  
Tel./Fax: 948 631 217  
[www.cenor.es](http://www.cenor.es)



# EGUBERRIA AILEGATU DA

Ongi etorri VENTA PEIO  
merkatal zentruetara



**EGUBERRIKO  
ZAPORE ETA  
GUTIZIEZ GOZATU**  
BESTA GOZOAK BIZI ITZAZUE

**MODA**  
ARTE

-% **50**  
AURRETATU  
EGUBERRIA!

GABON MAHAIA  
APAINZKEKO  
BEHARREZKO  
GUZTIA

EGON DOTORE  
GABONETAN

Marionnaud



**OPARI IDEIA  
PAREGABEAK**

ADIN ETA GUSTU GUTIENTZAKO OPARI IDEIA ZABALA



**JOSTAILUAK  
IRITSI DIRA!**

**VENTA  
PEIO®**  
Zure erosketa gunerik hoberenak  
Euskal Herriko bihotzean

**ABENDUAREN 2-TIK 31-RA**

[WWW.venta-peio.com](http://WWW.venta-peio.com)

Tel: +34 902 210 800 (es) | 0020 562 267 (fr)

Arnegui | Dantzarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin



## BEINTZA-LABAIEN

**KIROLA** → 26 MINUTU ETA 34 SEGUNDOTAN EGIN ZUEN LANA

# 8 kanaerdiko moztuz akitu du bere ibilbidea Jose Luis Telletxeak



ARGAZKIA: ARANTXA ETXEBERRIA

Jose Luis Telletxea lanean, bere azken aizkora saioan.

### Arantxa ETXEBERRIA

Iraganean mendi eta basoetan egindako lana oinarri, Beintza Labaienen aizkora apustuak ikusteko aukera izaten da maiz.

Azaroaren 23an proba berexia burutu zen Labaiengo plazan, Jose Luis Telletxea herritarra protagonista zela. 65 urte betetzeko punttuan, bere marka pertsonala egin nahi izan zuen aizkorari agur erran aurretik. Zortzi kanaerdiko moztu zituen 26 minutu eta 34 segundotan, hurbildu ziren auzotarrak testigu. Bertan zegoen epaileak akta jasozuen markaren lekukotasuna utziz.

Hitzordu honekin agur erraten dio urteetako ibilbideari. Baso lanetan aritutakoa eta plaza askotan erakustaldiak egindakoa, Nafarroako 2. mailako hiru txapelketatan parte hartu zuen. Nahiz eta gazte-rik etorri afizioa, berrogei urterekin hasi zen buru belarri Herri Kirol Federazioaren eskutik. Herrian burutu diren aizkora apustu askotako antolatzaile eta parte-hartzaile sutsua izatera eramandu kirol honen gatik duen zaletasun handiak. Horregatik, 2008an omenaldia ere jasotakoa da bertzeko herritarrek batera.

Proba ondotik, hamabost lagun inguru bildu ziren Itur Ondo elkartean, bazkari on batekin ospatuz.

**100€**  
opari Gas  
Naturalera  
ekartzen duzun  
adiskide  
(edo ahaide)  
bakoitzeko.  
Haiek ere hobaria  
jasoko dute!

Lagunek gurekin  
harremanetan  
jarri behar dute  
**900 333 456**  
telefono-zenbakira

gasNatural

# NARBARTE

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

## Euria eta hotza gorabehera giro ederrean joan dira San Andresak

Hirurogei bat lagun bildu ziren ostatuko bazkarian

**Martin BERTIZ**

Hotza eta euria izan zen aurtengo San Andresetako protagonista nagusia, baina hori ez zen nahikoa izan jendeak bestarako zeukan gogo baretzeko.

Goiz partean altxafe-ru soinuakin hasi zen besta giroa. Lehen orduan meza izan zen nagusi eta segidan, bazkariari bidea irekitzeko luntx eder bat eman zuten ostatuan. Bi orduak aldera hirurogei bat la-

gun bildu ziren ostatuan bazkaltzeko eta bazkalondoa Agerralde alaitua egon zen. Besta giroa arratseko ordu txikiak arte luzatu zen.

Jendea dantzakazebilen bitartean haurtxoak bere momentua bizi izan zuten, bostetan ipuin kotalariak eta ondoren txokolatada ederraz gozatzeko aukera egon baizen.

### Eguberriak

Eguberriak gainean ditugu eta herriko guraso elkarteak bestetako egitaraua prestatu du. Abenduak hamabostean Gorriti auzoan da-



ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

Gazteek nahiz haurrek ederki pasatzeko aukera izan zuten San Andres egunean.

goen kisulabera Mari Domingin etorriko da Olentzerorendako gutunak biltzera eta nahi duen guztiak emateko aukera izanen du. Ondoren herriko plazan taloak dastatzeko aukera egonen da.

Abenduaren 24ean goiz partean, plazan atsalain Olentzerorik kalejira egiteko erabiliko diren gurdiak prestat-

zeko bolondresak beharko dira.

Bazkalondoa hiru eta erdiak aldera urtero bezala Olentzero eta bere laguntzaileak menditik Gorriti aldera jaitsiko dira eta kantu taldearekin, musikalariekin eta herriko jendearekin elkartu ondoren kalejirari hasiera ematen zaio. Bost eta erdiak aldera trinketean de-

nendako merendua izanen da eta bertan guraso elkarteak zozketatzen dituen zaretoka eta bi afariei jabea paratuko zaie.

### Bulling-ari buruzko hitzaldia

Guraso elkarteak antolatutako, urtarilaren 9an eskolan bulling-ari buruzko hitzaldia izanen da.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L

**24 ORDUKO TELEFONOA**  
**948581959 | 948637404**

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



## GIZARTEA → URTEKO AZKEN BIDAI HANDIAK

# Tenerifen eta Perun izan dira erretiratuen elkarteko kideak

**Fernando ETXEBERRIA**

Hara eta hona ibiltzea gustoko dute Arkupeak Elkarteko kideek eta urtea agurtzeko, hegazkina hartu eta munduan barrena ibili dira. Azaroaren 4tik 11ra 29 bazkide Tenerife izan ziren. Inguruko hotelik hoberenetako batean ostatu hartu zuten eta eguraldi bikainaz gozatzeko aukera izan zuten, eskualdean aterkipean genbiltzan artean.

Hamabi lagunekoa beste kuadrila bat, berri, Perun izan zen. Azaroaren 11n abiatu ziren Iruñetik eta 13 egunez, paraje eder haiek zuzatzeko aukera izan zuten: Arequipa, Cusco, Aguas Calientes... asko gustatu zitzaiezkien eta nola ez, baita Machu Picchu ere. Ordu aldaketak eta 4000 metro baino gehiagoko garaierak, bat baino gehiago buruko mina ere eragin omen ziren. Bidaiaren balorazio orokorraz galdetuta, nekazitza izuli baziren ere, herrialdeak dituen altorak ezagutu eta egungo eta garai bateko zibilizazioen inguruan zertxobait ikasteko eta ikusteko aukera bikaina izan zela zioten.

Abendu amiararen el-  
karteko ordezkariaren ur-  
te bukaerako bilera  
egingo da eta bertan  
aurtengo urteak eman-  
dakoak eta datorren ur-  
teko bidaia, ikastaro eta  
hitzaldaien egutegia  
adostuko da.

ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA  
Arkupeak elkartekoak  
Machy Picchun.





Síguenos. Funciona.

Eta zuk... Zer koloretakoa ikusten duzu etorkizuna?

# "BERMATUA"



RGASeguridad 2022  
Pentsio-Plana

**% 3,3** UTB\*  
8 urtetara

**BERMATUA**

Metaturiko Errentagarritasun Bermatua.  
Mugaegunean **29,67%**



\* UTB: garantzia ordea las aportaciones voluntarias entre el 14 de octubre y el 31 de diciembre de 2012, y transpaso solicitadas entre el 14 de octubre y el 31 de diciembre de 2012 y recibidas hasta el 31 de enero de 2013, a hasta fin de cuantía de transpaso en todos los casos, según carta de garantía emitida al Plan de Pensiones otorgada por el Banco Cooperativo Español, siempre que no se modifique el actual marco regulatorio y fiscal que regule los Planes de Pensiones ni se modifiquen los derechos consolidados en base a la percepción de la prestación o al control de los derechos consolidados por alguno de los sujetos mencionados en el punto.

Fecha vencimiento de la garantía: 2 de febrero de 2022. Plan de Pensiones RGASeguridad 2022 autorizado por la DGSFP.

# GOIZUETA

GIZARTEA → AZAROAREN 30EAN

## Eguraldi kaxkarra eta giro bikaina azienda feria egunean

Emakume eta gizonezkoen arteko giza proban, herriko mutilak nagusi

### TTIPI-TTAPA

Eguraldiak ez zuen lagundu eta azoka plazatik eskolako frontoira eraman behar izan zen, baina halere jendetza bildu zen azaroko azken larunbateko Azienda FERIA egunean.

Urtetik urtera eskulangile gehiago erakartzen ditu feriak. 60 postu jarri ziren eskolako frontoian, baina beste batzuk lekurik gabe gelditu ziren. Hainbat azienda ere agertu ziren, eta taloak egiten jotasu ibili zen 15 laguneko taldea. Aurten, gaztanbera ere eskaini zuten Mertxe eta Korok, garai batean bezala, burnia esnetan sartu eta

horrek ematen dion gustu bereziarekin.

Baina hamargarren edizio honetan ikusmin handiena emakume eta gizonen arteko giza probak piztu zuen. Astigarraga eta Oiartzungo zortzi neskek osatutako Emarri taldeak 39 plaza egin zituen 550 kiloko harriari tiraka euripean; Goizuetako sei mutilek (azkenean, urnietar bat eta oriotar bat sartu ziren, min hartutako bi herritarren ordeztu) 42 plaza lortu zituen 650 kiloko harriarekin.

Bazkarian ere giro bikaina izan zen, 450 lagun bildu baitziren frontoian. Ohiturari eutsiz, Oiartzungo lagun taldeak prestatu zuen bazkaria goizuetarrentzat eta hauek mesedea itzuliko diete beste ospakizunen batean. Xabier Solano eta Jon Mariren musikarekin ederki joan zen bazkalondoa.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Azienda feria egunean jendetza bildu zen aurtengoan ere.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

### Bost kisulabe ezagutu dituzte Umore Onako mendizaleek

Goizueta ezagutuz izenburupean egiten ari diren mendi itzulien baitan, azaroaren 24an herriko kisulabeak ezagutu zituzten mendizaleek. Umore Onak antolatutako itzulian bost kisulabe bisitatu zituzten eta Joxe Jabier Etxeberria herritarren azalpen interesgarriak jaso zituzten hotzari aurre egin zioten 15 bat lagunek. Hurrengo mendi buelta, Umore Onak antolatzen duen zortzigarrena, urtarilean eginen dute eta ibilbide megalitikoak izanen da.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

### 56 korrikalari Euskaz Bizi Nahi Dut lasterketan

Azaroaren 23an zuen hitzordua *Euskaraz Bizi nahi dut* lasterketak eta 56 herritarrek korrika egin zuten euskaraz bizitzaren alde, Goizuetako Kultur Taldeak egindako deialdiari erantzunez. Probarekin hasi baino lehen, udaletxeko arku-petan lasterketaren leloa zeramaten kamixeta beltzak erosi zituzten partehartzaile gehienek.





OSPAKIZUNA → ABENDUAREN 3, 5 eta 6AN

# Euskararen Eguna ospatzeko, pesta eta aldarria bat eginda

Euskararen eguna bat, baina 365 egun euskaraz

**Juana Mari SAIZAR**

Azken alean aipatu genuen Euskararen eguna aurten hiru egunez ospatuko zela. Albisteak idazterako orduan, abenduaren 5 eta 6ko ekitaldiak oraindik egitekoak zeudenez, Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an egindakoei errepasoa emango diegu. Tenperaturak baxu baina eguzkia eta besta giroa lagun, giro ederrean ospatu zen eta herritarren parte hartzea handia izan zen. Hasteko, haurrek murala egin eta beheko trinketea apain apain utzi zuten. Segidan, Leitzako Jeiki abes-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Goian haurrak muralak prestatzen, behean musika emanaldia eta Jeiki abesbatzakoak.

batzaren emanaldiarekin gozatu ederra hartu zuten eta hurrengo entzuteko gogoz geratuzen jendea. Arratsaldean haurrak izan ziren protagonistak. Musika emanaldia eskaini zuten mu-

sikari ttikiek eta gero eskolako haur guztiek elkarrekin, egunerako apropos prestatutako bertsoak abestuzituzten ozen eta gogotsu ohol-tza gainean. Segidan, karrakeari eman zitzaion

hasiera, ume dexente animatu ziren banaka edo taldeka eta saio ederra eskaini zuten. Eta egunari amaiera eman eta hotzari aurre egin bidenabar, txokolate beroa eta bizkotxoak.

## PILOTA

Mikel Olazabal  
Lau t'erdiko  
finalean da

**Juana MARI SAIZAR**

Abenduaren 2an Tolosako Beotibar Pilotalekuan Rico IVren kontrako partida irabazita eskuratu zuen Mikel Olazabal herritarrek finalerako txarlera. Ondorioz, ostiral honetan abenduaren 13an finala jokatu du Lemunoren aurka. Herritarren babes izango du kantxan, askok finalerako txartelak erosi dituzte, eta frontoian eztarria uzteko asmotan omen dira gainera. Ondoren afari eder batekin bukatuko dute eguna.



1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 • IRLUÑA • 948 230 634

**Opari praktikoak!  
Zorionak!**



edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak  
maindireak • mantelak • kucinak • toailak

## LEITZA

GIZARTEA → EMAKUME ETA ERREKEN LOTURA ISLATUZ

# ‘Emakumeak busti egiten dira’ egutegia laster kalean da

Abenduaren 18an egingen da aurkezpena udaletxean

JM BARRIOLA

Antzina ingurune garrantzitsuak izaten ziren erreka emakumeen egunerokoan, hamaika lan, esperientzia eta bi- zipen sortu izan dira erreka bazterrean; egun ordea, albo batera utzi- ak ditugula. Horri irten-

bidea emateko asmoz, ‘Emakumeak busti egiten dira’ ekimena jarri zuten martxan Crana eta Guratransek, Gizarte Zerbitzuen laguntzarekin. Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako zenbait emakumek parte hartu dute proiektuan, garai bateko harreman hura gogorarazi eta ikustaraziz. Hala, esku- aldeko eta inguruko herrietako emakumeen argazkiak eta testigantzak bildu eta jasotakoare-

kin egutegi bat osatu dute. Egutegi berezi hau abenduaren 18an, arratsaldeko 6etan aurkeztuko dute Udaletxe-ko bilera aretoan eta doan banatuko da interesatuen artean.

## Hitzaldi sorta

Egutegiaren aurkezpena ez da izanen abenduko hitzordu berezi bakarra. Abenduaren 12an, 19:30ean, Ate- kabetzen ‘Solstizioaren nondik norakoak eta

horren inguruko ospa- kizunak Euskal Herrian’ azalduko ditu Haritza Bergarak. Abenduaren 13an, berriz, Miran- txiak” hitzaldia eta dis- pertsioa minutu bat ge- hiago ez, istripu gehia- gorik ez” dokumentala- ren emanaldia, hitzaldia eta ondoren lutxa anto- latu dituzte 19:30etik aurrera Ateketabiltzen. Amaitzeko abenduaren 19an Dabid Anautek, euskarari buruz eginda- ko lana aurkeztuko du.

## KIROLA

Euskal Herriko II.Mendi Erronka maiatzaren 31n izanen da

JM BARRIOLA

Iaz jokatu zen Lei- tzan lehenengo edi- zioa eta izan zuen arra- kasta ikusirik, bigarren edizioaren antolake- tan buru belarri dabil- tza dagoeneko Esai- teko kideak eta herri- tarrak. Maiatzaren 31n izanen da lasterketa eta ilbeltzaren 6an ire- kiko da izena emate- ko epea. Informazio gehiagorako <http://ehmendierronka.com>



UTZITAKO ARGAZKIA

## Menpekotasuna duten gaixoen zaintzari buruzko ikastaroa

Leitza, Areso eta Goizuetako 16 emakumek parte hartu dute Eva Martinez aditu- ak eskainitako ikastaroan, gizonezkoei deia egin zitzaizen arren, ez dira animatu. Denera 6 saio izan dira, 3 orduko iraupeneko bakoitza eta helburu nagusia be- har fisiko, psikiko edo sozial bereziak dituzten pertsonen, kalitatezko zaintza eskain- tzeke beren hurbilekoei bitartekoak ematea izan da, autonomi maila eta inguru- rekiko harremana sustatuz. Maite Perurena, Gizarte zerbitzuetako teknikariak an- tolatu du saioa, dohainik izan da eta bertaratutakoek diploma eskuratu dute.

## Orantzaroren etorrera

Ate joka ditugu egu- berriak eta urtero mo- duan Orantzaroa ospa- tuko da. ALKE kultur tal- deak Leitzako Orantza- roa indartzeko eginda- ko deia erantzunez, as- ko izanen dira Orantza- roren pampina balkoian jarriko dutenak. Mota guztietakoak jartzera

animatu nahi dituzte herritarrak lanbide ezberdinetakoak, gizon eta emakumezkoak... Umeek ere kalejira izan- en dute eguerdian eta iluntzeko 6:30etatik au- rra Orantzaroa herri- ko plazan izanen da, Maimur lamiaren eta be- ste laguntzaileekin ba- tera.



## Ba al zenekien

45 familia dagoeneko auzo konposta egiten hasi direla. Pixkanaka proiektua zabaltzen joa- tea da Mankomunitatearen asmoa.

**AINART**  
ILEAPAINGEGIA  
Elbarren, 67 behea • LEITZA • 948 510 197

**Ariztela**  
DEKORAZIO  
TAILERRA  
Egutegi orri!

- Etxerako arropa, maindirek, koltzak, nordikoak, mantak, sofarako fundak...
- KORTINAK: ehunak, barrak, mekanismoak, kortinak egiteko pieza guztiak...
- INALTERIETAKO TELAK ETA EUSKAL JANTZIAK
- SUJETA DOOREAK ETA BAINU JANTZIAK: neurria eskatzen ditugu, zure forma eta neurria egokitzeko diranik eta oso prezio onetan

T. 948 61 06 11 - ariztela2010@gmail.com  
Landa Industrialdea, Suizpi 3 LEITZA (Nafarroa)

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALEAN  
**facebook**  
[www.facebook.com/ttapi.ttapa](http://www.facebook.com/ttapi.ttapa)  
EGIN ZAITEZ GURE LAZUN



## LEITZA

## ARANO

KULTURA → ABENDUAREN 19AN EGINEN DU AURKEZPENA

# ‘Euskararen kate hautsiak’ liburua aurkeztu du Dabid Anautek

Euskal Memoriaren bitartez argitaratu du mila orri inguruko liburu mardula

### TTIPI-TTAPA

‘Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza-zapalkuntzaren memoria’ izena du Dabid Anautek osatutako liburuak. Lan mardula da, 1.000 orri ingurukoa, eta hala ere, euskarak historian zehar izandako urraduren erakusgarri ttiki bat baino ez diela dio egileak. Euskal Memoriaren aurtengo dibulgazio lana da aipatutakoa, eta azaroaren 27an aurkeztu zuten, Aieteko Jauregian. Euskaigintzako hainbat kidek bat egin zuten Leitza-Goizuetako Euskara teknikariak egindako liburuaren aurkezpenean.

Euskaldunon lekukotzen bideo bat erakutsiz hasi zuten aur-



UTZITAKO ARGAZKIA

Dabid Anaute, euskaigintzako hainbat kideekin batera egin zuen aurkezpena Donostian.

kezpena. Ondoren, Euskal Memoriako Arantxa Erasunek hartu zuen hitza. «Bazterketa, debekua, mespretxua, zigorra, jazarpena.. errepresioa. Euskarak eta euskaldunok asko sufritu dugu, luzez, gure hizkuntza indarrez desagerarazi nahi izan dutelako. Ez dute lortu, baina eragindako kaltea geure orainaren parte da», aipatu zuen Erasunek.

Dabid Anaute liburuaren egileak euskararen

zapalkuntzak ezaugarri jakin batzuk dituela adierazi zuen: «Konstante historiko bat da, oso aspaldi hasi zena, denboran zehar iraun duena eta egun ere agortu ez dena». Azken batean, hainbat lekukotzen bidez zapalkuntzaren kronika moduko bat osatzeaz gain, guztiari kontestua batu dio, euskararen historiari buruzko atalekin. Elkarriketatutakoen artean, eskualdeko hain-

bat lagun ageri dira. Euskal Herrian Euskaraz erakundeko ordezkari gisara Kontxi Erro lesakarrari ere elkarriketa luzea egin dio, baina bertze hainbat lagunen testigantza laburragoak ere bildu ditu. Mikel Illarregi leitzarrak lagundu dio elkarriketatatu horien argazkiak ateratzen.

Leitzan, hilaren 19an eginen du liburuaren aurkezpena Dabid Anautek.

### EGUBERRIAK

Gabonetako tailerrak Aranon ere egingo dira aurturten

### Maidar ANSA

Azken urteetan ohikoak izan dira Eguberrietako tailerrak Goizuetan. Aurtengoan, ordea, bi egun Goizuetan eta bat Aranon ospatzea erabaki da. Arano eguna abenduaren 30a izango da eta Goizuetakoak abenduaren 26 eta 27a. Hiru egunetan goizuetar zein aranoar haurrak daude gonbidatuta, beraz ez hutsik egin!

### Olentzeroren etorrera

Euskal Herriko etxe guztietara bezala, Arano ere abenduaren 24 gauean olentzero etorriko da opariz beteta. Goizean, ordea, haurrek herriarrei bixita eginen die etxe-etxe kantu ederrak abestuz. Gero, herrian elkarrekin bazkalduko dute giro ederrean haur eta gurasoek. Nahi duenak ize-na eman dezala udaltxean.

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN  
ETA GUK ZURI ERE OPARI  
SU TA GAR TALDEAREN  
‘BIZIRIK GAUDE’  
DISKO BERRIA

guztezulo

943 457 250  
harpidetza@guztezulo.com

BEHIN OPARITU  
11 ALDIZ JASO  
URTE OSOAN GOZATZERIK!

11 ALDIZKARI JASO DITU(ZU) ETXEA.  
HERRI, ZINIA, BERRI, URTUTIA, HERRIET,  
ARTE, EZKINAK, ARTEA, HERRIET.

20€  
KUNDOKO

# KIROLAK

**PILOTA → LESAKAN LARUNBATEAN, BERAN IGANDEAN**

## Bortzirietako eskuz binakako txapelketaren finalak jokatuko dituzte asteburuan

Sari banaketa eta zozketak egingen dira igandean Beran

### TTIPI-TTAPA

Abenduaren 14 eta 15ean jokatuko dira Bortzirietako eskuz binakako XIII. txapelketaren finalak.

Larunbat goizeko 10etan hasita jokatuko dira lehendabiziko finalak Lesakan. Ttikien kategorian, Arkupeko Aitor Galardi eta Jon Galardi, Gure Txokoako

Andoni Latorre eta Koldo Lacar-en kontra ariko dira. Umeak B kategorian, Arkupeko Eloi Sanchez eta Oihan Etxeberriaren kontra. Kimuak B mailan, Irungo Iker Amiano eta Unai Amianok lortua dute finalerako txartela eta larunbat honetan jokatuko zen finalerdiko irabazlearen kontra ariko dira. Umeak A mailan, azkenik, Gure Txokoako Unai Alzugarai eta Andoni Telletxea eta Unai Lluzia eta Jon Pargola izanen dira aurrez aurre.



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

### Koteto Ezkurra eta Iñaki Lizasori ohorezko aipamena

Koteto Ezkurra eta Iñaki Lizaso erremontelari doneztebarrek Nafarroako Gobernuak ematen dituen kirolaren goresmen-sariak jaso zituzten abenduaren 2an. Lizasori, erretiratzeko unean erremonteari egindako ekarpenagatik egin diote ohorezko aipamena eta Ezkurrari erremontean kirol-ibilbide garrantzitsua egin izanagatik. Ohorezko 7 aipamen eta zilarrezko 17 domina banatu ziren ekitaldian.

Igande goizeko 10etan hasita, Berako Eztegaran jokatuko dira bertze finalak. Kimuak A mailan, Gure Txokoako Josetxo Sese eta Asier Telletxea, Txarutako Mikel Ariztia eta Beñat Etxebereren kontra ariko dira. Haurrak kategorian, Arkupeko Aimar Otxoteko eta Gure Txokoako Oier Larretxeak ez zekiten oraindik

zein izanen zuten arerio hau idazterakoan, Kadete mailan, Gure Txokoako Mikel Eltzaurdia eta Oiarpeko Ekain Etxeberria, Arkupeko Jonan Fagoaga eta Beñat Ordokiren kontra ariko dira. Gazteak B mailan, Gure Txokoako Antoni Lazkanotegi eta Ultzamako Xabier Aizpuruaeren arerioak asteburu honetan erabaki-

tzeoak ziren eta Gazteak A mailan, Gure Txokoako Ander Errandonea eta Mattin Garbisu, Xabi Alkasena eta Xabi Mendy taldekideen kontra ariko dira.

Sari banaketa Berako partiden ondotik egingen da. Bortzirietako pilota eskolak tablet bat eta Martikoko bi lote zozketatuko ditu finalak bukatzerakoan.

**ERRUGBIA → AMPO ORDIZIA TALDEAN**

## Ohorezko Mailan ari da Asier Arretxea narbartearra

Uste baino minutu gehiago jokatzen ari da Liga eta Kopa helburu dituen taldean

### TTIPI-TTAPA

Asier Arretxea Bidegain narbartearra errugbian ari da aspaldian. Joan den denboraldira

arte Baztan Rugby Taldean ari zen, baina Ohorezko Mailan jokatzen duen Ampo Ordizia taldearen eskaintza jaso ondotik, Baztango taldea utzi eta talde gipuzkoarrarekin fitxatu du. Joan den urtean kopa irabazi zuen Ampo Ordiziak eta aurtengo helburua liga eta kopa irabaztea ditu, estatuko talde sendoenetakoa baita. Ez doa gaiz-

ki, gainera, bigarren baita momentu honetan Espainiako ligan.

Narbartarra, gainera, uste baino minutu gehiago jokatzen ari da eta azken partidaren titular moduan jokatu du. Zorionak *anka-xuri* eta disfrutatu!

ARGAZKIA: PEDRO CHURRUCA  
Asier Arretxea meléean bultzatzen eta baloiarekin lasterka.





GIZARTEA → HAMAR URTETARAKO LANA

## Mendien antolatze Plana akitzekotan da Balleko Etxea

Igor Erbiti eta Martin Mindegia ingeniariak idatzi dute

### TTIPI-TTAPA

Udalak azkeneko urte eta erdia Baztango mendien antolatze-plana egiten eman du eta, hemendik guttira, prest egonen da. Baztan 375 kilometro kuadroko hedadura duen udalerria da, zatirik gehienskoe-na mendia eta puska handi bat oihana. Plan honen bidez mendiko erabilerak antolatuko dituzte. Planaren idazketa arauzko prozedurari jarraikiz, Nafarroako Gobernua Martin Mindegia eta Igor Erbiti ingeniariari eman zien, Na-

farroako Gobernuak baita planaren idazketa ordaintzen duen erakundea.

Akitu hurren den herriko mendien antolatze-planean, bertzeen artean, etxeetako egur loteetarako eremuak zehazten dira. Modu berean, egur loteak etxearat eramateko eremuak ere aurreikusi dira. Bertzalde, udalerriak izan dezakeen biomasa beharraz hornitzeko zenbat lehengai dagoen kalkulatzeko da. Urtero mendian egin beharreko lanak ere planean idatzirik daude: bakanitzeak, inausketak, mendia ongi egoteko lanak... Balarako herritar eta erakundeen beharrik asetuta, salmentarako egon daitezkeen



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

### Euskararen Eguneako kalejira jendetsua egin zen Elizondon

Abenduaren 3ko Euskararen Egunean *alimaleko* kalejira egin zuten Elizondon. Hiru lekuetatik abiatuta herriko plazan bat egin zuten. Iturengo joaldunen, erraldioen konpartsako lau erraldoirien, txistularien, atabalarien eta bertze musikariren laguntza izan zuten. Aitzinera begira, Iruritan, abenduaren 20an *Euskararen galera eta berreskurapena Iruritako familietan* solasaldia eskainiko du Paula Karsaresek eta abenduaren 22an *Lingua Nabajorum* antzezlanak ikusgai izanen da.

loteak ere kalkulatzeko ditu. Azkenik, kontu aipagarrien artean, egin beharko liratekeen pistak eta mendiko azpiegiturak ere badaude.

Horrekin guztiarekin Baztango mendiak ondoko hamar urteetarako antolatuak geldituko dira eta horien kudeaketa aunitzez errexagoa izanen da.

### EGUBERRIAK

#### Haurren Txokoa hilaren 27tik 29ra

##### TTIPI-TTAPA

Puzgarriak, tailerrak, aurpegi margoketak eta sorpresak izanen dira abenduaren 27tik 29ra, 17:00etatik 20:00etara Elizondoko Udal pilotalekuan Baztandarren Biltzarrak antolatu duen Haurren Txokoan. Haur bakoitzak egunean 2 euro ordaindu beharko du eta ateratzen dena Xorroxin Irratiaren eta Xaloe Telebistaren artean banatuko da.

ferreteria  
**Quevedo**

TXERRI HILTZEAN  
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 234 • Faxe: 948 581 210

# BAZTAN

GIZARTEA → BAZTANGO HEZKUNTZA BATZORDEAK

## D ereduko profesionalen gaineko ikerketa indiskriminatua salatu du

Horrelako kanpaina egitea iraingarria iruditzen zaio

### TTIPI-TTAPA

Lekarozko Institutuak, Lanbide Heziketa zentroak, Baztango Herrietako eskolek, San Frantzisko Xabier eskola publikoak, Baztan Ikastolak, Haur Eskolak eta Guraso Elkaratek osatzen duten Baztango Hezkuntza Batzordeak, prentsan agertu den D ereduko 1.600 profesionalen gaineko ikerketa indiskriminatua salatu du.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak eta Hezkuntza kontseilariak D ereduen kontra hartu duten jarrera mespretxagarria iruditzen zaie, «adierazpen, elkartze eta irakaste askatasunarekiko ikaragarriko errespetu falta».

Ideologiarengatik norberaren intimitatea

eta integritate profesionala zalantzan paratzea onartezina iruditzen zaio Baztango Hezkuntza Batzordeari, «noiz eta aurrematrikulazioa baino bi hilabete lehenago!». D ereduen kontrako horrelako kanpaina egitea iraingarria iruditzen daio.

Nafarroako Gobernuak egiten ari den murrizketen gainetik Baztango irakasleek kalitatezko hezkuntza bermatzeko ahalegin handia egiten dutela azpimarratu du Hezkuntza Batzordeak eta honekin batera, ikertutako irakasleei elkartasuna adierazi eta D ereduen alde jarraituko dutela adierazi nahi dute.

### Urtea agurtzeko hainbat kultur ekitaldi

Baztango Udalak antolatuta hainbat ekitaldi egingen dira egunotan. Hilaren 13 eta 14an, Maskaren Jokoa taile-rra egingen dute Elizondoko Arizkunenean, Te-

atro que madura taldearen eskutik, ortziralean 18:30etik 21:30era eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Aitzinetik izena eman behar da.

Baztango Musika Eskolak Eguberrietako kontzertua eskainiko du abenduaren 14an Erratzuko elizan, 17:00etan. Hilaren 20an, berriz, *Euskararen galera eta berreskurapena Irurita-ko familietan (1970-2010)* solasaldia eskainiko du Paula Kasaresek 19:00etan Irurita-ko Jauregian. Hilaren 22an, Tartean Teatro&Ez dok hiru Bikoteatroak *Lingua Nabajorum* antzezlan eskainiko du 19:00etan Irurita-ko Gizarte Bilgunean. Hilaren 26an, Eñaut Gorbea ipuin kontalaria ariko da 3-9 urte arteko haurrentzat 17:00etan Elizondoko Kasinoan. Hilaren 29an, azkenik, hitzordu bikoitza izanen da. 12:45ean ahots kontzertua eskainiko du Iruñeko ahots lodien abesbatzak Eli-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Alkurruntzeko hezeguneko egokitze lanak egin ditu Tasubinsak

Nafarroako Gobernuak Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak eskatuta, Europako Life Tremedal programaren baitan, Alkurruntzeko hezeguneko egokitze lanetan aritu dira Tasubinsako lau langile. Ezintasunen bat duten hiru langilek eta monitoreak enborrekin dikeak egin dituzte ur-korrontea bideratzeko, aziendak ez igarotzeko itxidurak paratu dituzte, desbroze selektiboa egin eta panel interpretatiboak kokatu dituzte. Patxi Alzuarte monitoreak aipatu digunez, «berez gisako lanak eginak genituen Urdazubin eta Zugarramurdi, baina Alkurruntzen ailegatzeko arazo gehiago izan ditugu. Hortaz, *todoterreno*a hartu eta zenbait bidai egin behar izan ditugu, nahiko astu-zena materiala garraiatu ahal izateko. Eguraldiak ere ez digu lagundu, euri aunitz egin du, baina halere, lan handia egin dugu eta harro gaude».

zondoko elizan eta bertsoa eta literatura uzartuko dute Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Itxa-

ro Borda eta Pello Ramirezek *Kafkaren aulkia* ikuskizunean, 19:00etan Arizkunenean.

**ANZABAL INMOBILIARIA**



- Zuriak, Auzoak, Autok, etxebizitza, istripu eta bizitza auzoak
- Lan aholkularitza Normak eta Auzoak Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairu
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

**Mikel Yanci**  
Fisioterapia  
Osteopatía

Santiago, 17 • ELIZONDO • 699 267 981

**Gierresenea**  
OSTATU • JATETXEA

Jaki tipikoak • Etxeko giroa

Iturriotz auzoa • Tfnoa: 948 592 043  
ORONÓZ • MUGAIRI





GIZARTEA → MARTXAN PARATU ETA 8 HILABETERA

## Konposta ateratzeko eguna egin dute lehen aldiz

Baztan Berriko auzo-konpostadoratik konpost ondua atera dute

### TTIPI-TTAPA

Auzo-konposta egiteko haranean dauden hiru gunetako batean, konposta ateratzeko

eguna antolatu zuen lehen aldiz Udalak. Jardunaldi hori Elizondoko Baztan Berriko aldean egin zen azaroaren 25ean.

Auzo-konposta egiteko gune hori aurtengo martxoaren bukaeran paratu zen martxan eta 8 hilabete pasa ondoren bertatik konpost ondua ateratzea lortu



ÚTzitako ARGAZKIA

### 300 ikaslek parte hartu dute Enpresa Simulatuen IV. Azokan

Nafarroako Enpresa Simulatuen IV. azoka egin zen azaroaren 22an Lekarozko Institutuan, Elizondoko Lanbide Eskolak antolatuta. Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeen artean urtero egiten den ekimena da, enpresen arteko jarduera komertziala sustatzeko eta salerosketa egiteko helburuarekin. Lanbide Heziketako Goi eta Erdi Mailako zikloetako ikasleek parte hartzen dute eta azaroaren 22ko topaketan, Lekarozko ikasleekin batera, Lizarra, Tafalla eta Iruñeko Maria Ana Sanz, Donapea eta Cuatro Vientos institutuak bildu ziren. 300 ikasle inguru eta 31 enpresa simulatu. Enpresa simulatu hauetan, benetan salerososten ez den produktu edo zerbitzu baten eskaintza egiten dute ikasleek, eta ondotik enpresa baten jardueran sortzen diren hainbat egoeren kudeaketa administratiboa egiten dute, Elizondoko Lanbide Eskolatik adierazi dutenez, «gaur egun enpresa munduan erabili ohi diren teknologia eta programa informatiko berrirozatzaileez baliaturik».

da. Ateratako konpostaren zati bat bertaratutako partehartzaileen artean banatu zen eta gainerakoa, zakutan sarturik, hantxe berean

utzi zen nahi zuenari hartzeko aukera eman. Udalak hondakin organikoak konpostatzera animatzen ari diren herritarrei eskerrak

eman nahi dizkie. Izan ere, horien lanari esker hondakinen kudeaketan aitzinapausuak ematen ari direla nabarmentzekoa da.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

### Liburu berria aurkeztu du Dolores Redondok

Dolores Redondo idazle donostiarak Baztango trilogiarekin baita bigarren liburua, *Hezurren ondarea*, aurkeztu zuen azaroaren 30ean Elizondoko Arizkunenean. Jendetza bildu zen Kultur Etxeko ganbaran eta ohorezko aureskua ere dantzatu zioten hunkiturik agertu zen idazleari. Aipatzekoa da katalunierako edizio-ko irakurleek Baztango mapa turistikoa ere topatuko dutela liburuan, Baztango Udalaren eta Columna Edicios-Grup 62ren arteko lankidetzari esker.

EL ZAPATO DE INMA  
T 948 45 25 87  
inma@elzapatodeinmazapatak.es  
Santiago, 38 behea  
31700 Elizondo, Nafarroa  
www.elzapatodeinmazapatak.es

IPINGI  
%10  
DESKONTUA  
30€tik gorako  
gastuan

# URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → HAINBAT EKITALDI ANTOLATU DITU

## 15 urte bete ditu Ugarana Emakume Elkarteak

Gaur egun erabiltzen duten lokalaren ordezkoa eskuratu nahi dute

### TTIPI-TTAPA

Urdazubiko Ugara-na emakume taldeak lan polita egiten du. Duela 15 urte sortu zen eta momentu honetan 70 emakume bazkide ditu, hala ere, bazkide berriak egitera animatu nahi dute. Azken batzarra urrian ospatu zen eta urtero bezala, aurrekontua onartu berri dute.

Momentu honetan bi ikastaro ditu martxan (pilates eta zunba) eta bien artean 60 bat lagun biltzen ditu. Gauza da herritarretaz gain, Ainhoa, Zugarramurdi, Sara eta Senpereko emakumeak ere animatzen direla, eta ikastaroendako tokia (Leor-

lasko eskolak) ttikia gelditzen ari dela, hainbat emakume ikastarotatik kanpo gelditu baitira. Hori dela eta, alternatiba ezberdinak aztertzen ari dira.

Martxan direnetaz gain, bertze lau ikastaro eskeiniko dituzte laister: irriterapia, eskulana, pintura, eta altzariaren errestaurazioa. Ugara-nak urtero antolatzen dituen bertze bi ekitaldi, Santa Luzia eguna eta Emakumeen eguna dira. Lehenbizikoa abenduaren 14an ospatuko da: meza Zugarramurdi eta ondok afaria. Bigarrena martxoaren 8an Petritegi sagarnotegira ganez. Azkenik, aipatu Ugarana Elkarteak bazkide egin edota ekimenetan parte hartzeko, gutun, email edo telefonoz jartzen ahal dela harremanean:

Anaxtaxi Taberna-Denda San Salvador Plaza, 2.  
